

# ELKARTASUNEZ JANTZITA

**Dohaintzan jasotako arropa antolatzeaz eta banatzeaz arduratzen da herritar talde bat, Elkargunean 16**

UTZI EZAZU  
ZURE SEME-ALABEN  
IRIBARREA GURE  
PROFESIOALEN  
ESKUETAN.

↳Pedi 2017 programare elkartutako klinika.

Jose Artetxe kalea, 5 (Laboratorio indus) 20730 Aspetin



☎ 943 025 955



Smart Retail  
sistema berria



**AZKOITIA** Xabier Munibe, 11 / Julio Urkijo, 16  
Tel. 943 85 18 97 [www.milarlarramendi.com](http://www.milarlarramendi.com)



Astelehenetik ostiralera:  
9:30 - 13:00 16:30 - 20:00  
Larunbata: 9:30 - 13:00



Bazkide egin nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan aukera hauetako baten bitartez:

- [uztarriabazkidetza@gmail.com](mailto:uztarriabazkidetza@gmail.com)
- Telf: 943 15 03 58
- Bulegoko helbidea Helbidea: Perez Arregi 1 behea
- [www.uztarria.eus](http://www.uztarria.eus) webgunean, Kontaktu formularioa bitartez



# egin bazkide

## uztarria

Argitaratzailea. Uztarria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

**Telefona eta faxa.** 943 15 03 58

**Posta elektronikoa.**

uztarria@uztarria.com

**Posta kutxa.** 227, Azpeitia

**Lege gordailua.** SS-860/2000

**Zenbakia.** 191.a (2017ko otsaila)

**Urtea.** XVIII.a (1999ko azaroan sortua)

**Maiztasuna.** Hilabetekaria

**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta

Euskara Zerbitzuak

**Publizitatea.** 685780412 /

uztarria@uztarria.com

**Bazkidetza.** 943 15 03 58

**Tirada.** 2.500 ale hilero

**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak

**Azaleko argazkia.** A. Agirrezabala

Webgunea.

[www.uztarria.eus](http://www.uztarria.eus)

**Uztarria herri aldizkariaren**

**laguntzaileak** (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Uztarriak  
Bai Euskarari



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako  
Hezkuntza, Hizkuntza  
Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz  
lagundua

**Oharra.** Uztarriak ez du bere gain hartzen  
aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

## 2017KO OTSAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



04

### iritzia

**Inkesta.** Tatuajerik ba  
al duzu? Edo egiteko  
asmorik bai? **13**

### mamia

**Kaluse.** Unai Martinez  
eta Iban Gerra musikariei  
elkarrizketa **04**

**Klik!** Elkargunean  
arropa jasotzen  
dutenetik banatu arteko  
prozesua, argazkitan **16**  
**Bizitzeko filosofiak.**

Makrobiotikoa, beganoa  
eta barazki-jalea **20**

**Errekaleor.** Hainbat  
herriar auzo okupatua  
biziberritzen dabilta **24**

### jakiteko

**Gogoratzen?** Garai  
bateko zezenaren hileta,  
karnabalak agurtzeko **34**



24



20

**Ba al dakizu** apirilaren 5ean, asteazkena,  
igaroko de la euskararen aldeko 20.  
korrika Azpeititik, 05:00ak aldera? **Uztarria**



## Izan uztarriaren bazkide

t 943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak  
ere eskuratuko dituzu.** Uztarria Komunikazio Taldeak  
orain arte **13 liburu**, **CD 1**, **DVD 1** eta **biografia**  
**txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

**1.060** bazkide  
gara Uztarria Komunikazio  
Taldean; eskerrik asko denei.

**30** euro  
dira urtean.



**Liburuxka biografikoak, oraingoz.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia,  
Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

# IBAN GERRA ETA UNAI MARTINEZ

Kaluse

## “Taldean bi izatea abantaila izugarria da”

Gitarra elektrikoa eta bateria lagun, rock instrumentala egiten dute, hitzen presentziaren beharra sentitu gabe. Bigarren lana kalean, gorenean daude.  Ainitze Agirrezabala

**E**ntzuleen belarrietara gozo sartu da Kaluse. Bi urte, bi disko, eta konposatzen jarraitzeak fresko daudela diote. **Kaluse. Herri basatia. Zuen, baina, ez da musika basatia, bortitza, gogorra.** Teknikoki hitz eginda, ez dugu genero gogor gisa sailkatzen gure musika. Halere, gure musikak zerbait gogorra eta bortitza transmititu dezakeela uste dugu. Finean, musikak eta entzuten duen horren egoerak determinatzen dute sentitzen dena, eta, ondorioz, egoera pertsonalak eta subjektiboek zeresan handia dute. **Umetako lagunak zarete. Noiz esan zenioten elkarri: ‘Osatuko dugu taldea?’.** Nola-ko ibilbidea izan da zuena?

Guk ez diogu elkarri halako galderarik egin inoiz. Umetako lagunak gara, eta horri musika afizioa eta interesa gehituta uler daiteke gure musika taldearen sorrera. Hasieran, musika egiteko gelditzen ginen, bertsioak jotzeko, eta batzuetan kantuak ere sortzen genituen. Prozesu bat da, zeinak gaur egunera ekarri gaituen. Tartean badago erabaki kontziente bat taldearen eraketari dagokionez, baina hori ibilbidearen kontzientzia besterik ez da. “Nola ulertzen dugu musika?” edo “zer zentzu du musika egiteak garai honetan?” galderak egiten dizkiogu geure buruari. **Ez zarete bikotea; taldea, baizik. Biok nahikoa zarete?** Aurrera goazen heinean are eta

### |||DATUAK|||||

|||**Jaio.** Unai: 1996ko otsailak 18. Ibon: 1996ko ekainak 22.  
|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizi tokia.** Madril. |||**Lanbidea.** Filosofia eta Soziologia ikasleak, hurrenez hurren.

konbentzituago gaude biok nahikoa garela osatzen dugun talderako. Hasieran, nahikoa eszeptikoak baldin baginen puntu horri dagokionez, denborarekin konturatu gara bi izateak bere abantailak dituela, eta horrek izugarritzko askatasuna ematen digu musika egiterakoan. Hala ere, ez diogu ezetz esaten nohizean behin elementu berriak sartzeari. Azken CDan, adibidez, hainbat kolaborazio eduki ditugu, momentuak eta musikak hala eskatzen zutelako. Oraingo, horrela jarraituko

dugu, nahiz eta jakin denborak gauzak aldatu ahal dituela. **Taldea eta kantuak izendatzerakoan indigenetan inspiratu zarete. Zer miresmen diezue haiei?** Maketan indigenen gaiari erreferentzia egitea erabaki genuen, hortik baitator gure taldearen izena. Halere, bigarren lan honetan ez dugu bide beretik jarraitu. Leire [Arenas] lagunari eskatu genion diseinua eta azala egiteko, eta askatasun osoa eman genion lanaren edukiari dagokionez. CD bakoitzak gai desberdinak jorratuko dituela uste dugu. **Ez al duzue hitzen presentziaren beharra sentitzen?** Ez, musikaren bidez hitzen ausentzia betetzen saiatzen gara, musi-



Unai Martinez eta Ibon Gerra, Azkoitiko Jan eta Lo baserrian prestatutako behin-behineko estudioan diskoa grabatzen. || **Peru Iparragirre**

kak bakarrik hitz egin dezan. Hori erronka bat da, hitzak hainbesteko pisua duen egungo musikan.

**Erlojuari erreparatu gabe egiten dituzue kantuak: minutu bat, lau, hamar, hogeitazazpi... Luze-laburrari begiratu gabe aritzen zarete?**

Kantuek ez dute aurretiko egitura mugatu bat, prozesu baten ondorio dira. Sortzerakoan, beraz, ez diogu erreparatzen denborari.

**Zein musika talde dituzue erreferente?**

Oso zaila da talde baten izena ematea. Guk ez dugu soilik Kalusek errepresentatu dezakeen musika estiloa entzuten. Etengabe ari gara musika estilo berriak ezagutzen, eta entzuten dugun guzti horren sintesi nahastu bat besterik ez da gurea. Musika talde askok izan dute eragina gudan, baina ez dakigu zein izan daitekeen gure erreferentea.

**Bi urtetan bi disko kaleratu dituzue. Nola aldatu da taldea?**

**Zer bilakaera izan duzue?**

Kantuak egiterako orduan argiago dugu zer egiten dugun, nahiz eta askotan ez lortu bilatzen genuena. Bestelako musika entzuteak izugarrizko eragina izan du.

**Hainbat artisten kolaborazioak bildu dituzue bigarren lan honetan.**

Bai, Felipe Murillok konposatutako eta Iraia Bereziartuak egindako kantu bat sartu dugu. CDa boroiltzen duela iruditzen zaigu, eta oso gustura gaude emaitzarekin. Horrez gain, Jokin Azpiazuk ere parte hartu du lan honetan.

**Autoekoiztuta atera duzue diskoa. Beraz, lana kantuak ekoizten bakarrik ez. Zer ikasi duzue?**

CD-a ateratzea prozesu luzea da, eta kantuak egiteaz gain lan asko dago atzetik, eta are gehiago zuk zeuk egitea erabakitzen baldin baduzu. Baina horrek guztiak merezi du, gehigo baloratzen baituzu egindakoa.

**Unerik onenean zaudetela diozue; konposatzeko fresko, gogoz. Ere mu berriak urratzeko asmorik baduzue?**

Bai, uneoro ari gara ideia musikalak garatzen bide batetik edo bestetik. Orain, gero eta leku gehiago uzten diogu inprobisazioari eta ere mu berriak jorratzeko asmoa dugu.

**Emozioak eta pozak bai, baina krisirik, zailtasunik, izan duzue?**

“musikaren bidez hitzen ausentzia betetzen saiatzen gara”

“entzuten dugun guztiaren sintesi nahastua besterikez da gurea”

Batzuetan, gauzak errazago ateratzen dira, baina, beste batzuetan, ideiak ez dira berez ateratzen. Halere, ez dugu krisia dei daitekeen unerik igaro.

**Bi diskoen aurkezpenak Gaztetxean egin dituzue. Zuen tribuaren babesean?**

Musika kontzertuak inguruarekin erlazioan lortzen du bere zentzua. Diskoaren aurkezpena egiterakoan ez dugu zalantzarik, Gaztetxean aurkitzen baikara ondoen.

**Unai: Zer ezaugarri edo bertute ditu Ibonek?**

Musika estilo desberdinak eza gutzen ditu, eta musikaren soinuaren inguruko jakintza handia dauka. Horrekin, ekarpen handia egiten dio taldeari.

**Eta, Ibon, galdera bera zuri.**

Uneoro kantuak eskatzen duen nota hori bilatzeko erraztasuna eta gaitasuna du. Nire buruan ditudan ideiak egituratzen eta finkatzen ditu. Horrela lortzen du gure taldeak behar duen oreka.✱

# Mozorroak

**G**ainean ditugu gure herri honetan ihauteriak. Urteroko moduan aukera bikaina izango dugu parrandarako, eta, bide batez, mozorrotzeko. Elegante Egunak ate gutxi irekitzen dizkio originaltasunari, beraz, astelehen gaua aprobetxatuko dugu hainbeste denboran buruan izan dugun pertsonai, gauza edo animalia gisara jantzita kalera ateratzeko.

Ziurrenik ia denok aukeratua izango duzue mozorroa, baina oraindik ere izango da erabakia azken ordurako utzi duenik. Horientzat zenbait gomendio ematera ausartuko naiz, erabilgarriak egingo zaizkielakoan:

Hasteko, gogoratu nahi nuke ipar hemisferioan bizi garela. Gurean tamalez, ihauteriak neguan izaten dira. Badakit oso tentagarria dela Adan eta Eva, Hawaiako tribu bateko kide, Doritosen tamainako bikiniarekin eta abar janztea, baina agian ez da egokiena. Azken finean, Osakidetza zerbitzu publikoa da, denon artean ordaintzen duguna, eta badute nahikoa lan aurten gripearekin. Ondorioz, hotzari eta behar bada euriari aurre egiteko moduko mozorroak aukeratu.

Aurten jende ugari Donald Trumpen mozorroa aukeratuko du. Originaltasuna bada bilatzen duzuna, alde batera utzi beharko duzu AEBtako presidentearen aukera. Hala ere, politika munduan baduzu aukera ugari. Zure helburua inork ez ezagutzea bada, UPYDko edonor duzu aukera ona. Kuadrilako liderra izatea nahi baduzu, baina zure lagunak ez badizute kasorik egiten, Patxi Lopez izan zaitezke. Betidanik esan badizute irribarre polita duzula EH Bilbuko norbaiten aldeko hautua egin beharko zenuke. Euskadiren Autogobernuak zer esan nahi duen zehatz mehatz badakizu, zalantzarik gabe EAJko kideren bat aukeratu ezazu.

## Azketako iturria

Urtean zehar herri inguruan gertatu den zer baitetan oinarrituta mozorrotzea baduzu gus-



egoitz arruti

Irrikaz nago Astearte  
Karnabal goizeko dianan  
ehunka pertsona bandaren  
atzetik elkartzeko

tuko, aurten zure aukera Azketako iturriko Jesusen Bihotzaz mozorrotzea izan daiteke. Edo-eta Azketako iturrian Jesusen Bihotzaren orde zuten lauburuaz. Edo-eta Azketako iturriaz, baina irudirik gabe.

Modan dagoen arren, aukera originala iruditzen zait Lapiku Otsoyakiz janztea. Ez otsozeta ez lapikuz, baizik Lapiku Otsoyakiren 2 pegatina 2x2 metroko tamainan inprimatu (ahal bada laneko inpresoran) eta bat aurretik eta bestea atzetik isatsi.

Animalia zalea bazara, aukera oso ona da tabernetan lekua egiteko trikuz mozorrotzea. Gauza garrantzitsua da parrandara atera eta tabernetan sartu ahal izatea. Honela, kontuan izan beharko dituzue tabernen ateeak dituzten neurriak mozorroa aukeratzeko.

Azkenik, oso garrantzitsua da, mozorroa edozein delarik ere, komunera joandakoan oztopo gutxi jarriko dituzten objektuak jartzea soinean. Nahikoa ohikoa da gaua aurrera doan heinean komunera joateko beharra areagotzea; gainera, habileziak ere murrizten joaten dira ordukin batera.

Irrikaz nago Astearte Karnabal goizeko dianan, beste behin, ehunka pertsona herriko musika bandaren atzetik elkartzeko. Hementxen dala!\*





#erronkarakoprest

GURE  
IKASLEEN  
AHOTAN

AMAIA ETXENAGUSIA FABRIQUE Mondragon Unibertsitateko ikaslea

## “ikasleok benetako proiektuak nola autogestionatu ikasten dugu”

III Amaia Etxenagusia Fabrique Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza graduako 4. mailako ikaslea da Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan, Arrasaten. Orain, Milanen dago, Erasmus bekaren bidez hango Diseinu Eskola batean. **Zergatik aukeratu zenuen Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza gradua?**

Diseinu gradua aukeratu nuen, ingeniaritza bateko alderdi tekniko zientifikoak diseinuak duen alderdi artistikoarekin lotzen dituelako.

**Mondragon Unibertsitatea aukeratzera koan, zer hartu duzu kontuan?**

Gertutasuna hartu nuen kontuan, gehien bat. Baina, egia da, ate irekietara joandakoan, oso interesgarria iruditu zitzaizkidan ikasketa teorikoak eta praktikoak batera lantzeko erabiltzen duten metodologia: PBL –Problem Based Learning edo Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza–.

**Bat datoz espero zenuena eta aurkitu duzuna?**

Bai, orokorrean, espero nuen bezala izan da. Alde horretatik, ez dut ezustekorik jaso.

**Graduko zer alderdi nabarmenduko zenuke?**

Ba, ingeniaritza gradu bat den aldetik, hasiera batean alderdi teknikoa artistikoaren gainetik nabarmentzen dela iruditzen zait, nahiz eta azken bi urteetan metodologiak, diseinuak eta horrelakoek garrantzia gehiago hartzen duten.

**Nolakoa da ikasteko metodologia? Alde handia dago batxilergokoarekin?**

Metodologia desberdina da; unibertsitateak ebaluazio jarraitua du, eta hori bukatzean, PBLen bidez aurretik ikasitakoa praktikan jartzen da, talde

lana sustatuz eta ikasleak benetako proiektu bat autogestionatzen ikasiz. Batxilergoa baino praktikoagoa da, baina ez zait iruditzen pauso handia dagoenik Batxilergotik gradu-ko lehen mailara.

**Nolakoa da irakasleen eta ikasleen harremana?**

Klaseak handiegiak ez direnez, ikasle berriak ezagutzea errazagoa da. Irakasleekin harremana ere erraza izan da, bai zalantzak argitzeko edo bai klasean parte hartzeko.

**Praktikaldia non eta zertan ari zara egiten?**

Orain, Milanen nago, Italian, Erasmus bekarekin, urte erdi baterako. Diseinu eskola batean nago eta asko antzematen da diseinuari eta alderdi artistikoari garrantzia ematen dietela, nahiz eta aspektu teknikoak kontuan izaten dituzten. Graduko alderdi artistikoa gustuko izanez gero, joateko leku proposa da. Oso gustura nago bertan, hizkuntza berri bat ikasten, leku desberdinetako jendea ezagutzen eta leku desberdinak bisitatzen. Aukera izanez gero, bizitzea merezi duen esperientzia da!

**Gradua bukatutzean zer asmo duzu?**

Oraindik ez nago ziur zer egin nahi dudan. Ziur asko, lanean hasten saiatuko naiz, eta, bestela, ikasten ari naizen gradua-ekin zerikusia edo lagungarria izango zaidan ikasketak egingo ditut.✱

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



# Elefantea egongelan

**B**at baino gehiago harritu gintuen Gus Van Sant zinema zuzendariak *Elephant* (2003) filmarekin. 1999. urtean Columbine institutuan (AEB) izandako sarraskian oinarritzen da pelikula, eta *Elephant in the room* ingelesezko esapide metaforikori egiten dio erreferentzia. Esan nahi du, egongela erdian elefante bat badugu, ezikusiarena egitea bere presentzia ez onartzea dela, hots, arazoa ekidin nahian dabilela elefantea egongelan dagoela aitortzen ez duena.

Ez dakit euskaldunok ere ez ote dugun aurrez aurre elefante ikaragarri bat, gertatzen ari den guztia lausotzen digun piztitzarra. Profil lingusitikoen gaiak hautsak harrotu zituen gurean. Hortik aurrera, erreskadan etorri ziren EAEk PISA datuetan ateratako datu eskasen errua euskarak zuela zioten artikulak eta euskararen aurkako beste hainbat eraso. Horren aurrean, ordean, ez dakit euskaldunok batu beharrean ez ote garen banandu.

Urtero legez hutsik egiten ez duen eta hainbat otordutako tertuliak ospintzen dituen euskalkia eta euskara batuaren inguruko solasaldiek ere izan dute euren lekua pasatu den urte honetan. Gai honen inguruan izan diren hainbat akusazio madarika nitzake, baina ez nator aurkariak irabaztera, justu kontrakoa, batu gaitezen eskatzera baizik.

## Elefantea Euskal Herrian

Elefante ikaragarri bat dugu euskal agertokian, eta erdara da aurrean dugun piztitzar hori. Euskaldunok elefantearen orbitan jirabiraka gabilta, katua eta txakurra lez elkarri gauzak leporatzen. Bien bitartean, gu geu gabilta piztia elikatzen. Hitzunak galtzen gabilta elefanteari izkin egiten diogulako, ez diogulako parez pare dugun arazoari behar duen garrantzia ematen, eta espainola eta frantsesa hitzunak irabazten dabilta etengabe.



|||||||anartz izagirre|||

|||Elefante ikaragarri bat dugu euskal agertokian, eta erdara da aurrean dugun piztitzar hori

Euskarari kalte besterik egiten ez dioten norgehiagokak sortu ditugu, eta dagoeneko ahaztu zaigu euskarak duen arazo nagusia ez direla euskalkiak, ezta euskara batua ere, espainola eta frantsesa baizik.

Ireki ditzagun begiak, eta behatu aurrean duguna. Elefante ikaragarri bat dugu egongelan eta berandu baino lehen arazoari aurre egin ezean, elefanteak berak kenduko du gure hizkuntza euskal eszenatokitik. Desageraraziko ditu euskalkiak, euskara batua, eta azkenik gu, euskaldunok. Onar dezagun, elefante bat dugu egongelan, eta ez du bere kabuz alde egiteko intentziorik. Batu gaitezen, ez banandu. Egoera honen aurrean, euskaldunoi, ez zaigu batzea beste aukerarik gelditzen, euskal agertokian bizirauten jarraitu nahi badugu behintzat. Bizirik jarraitzea, horixe baita une honetan euskarak duen erronka nagusienetako bat. Hitzunak irabaztea, eta ez hitzunen arteko lehiak sortzea. Batu gaitezen, beraz, elefantea handiegia baita ezikusiarrena egiteko, eta arazoa handiegia baita oraindik arazo gehiago gehitzeko.\*



*"Il Partigiano" Azpeitiako lehen pizza artisan egilea da. Gure Italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egindako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.*

**ildefonso gurrutxaga kalea, 12 behea**

**Telefonoa**

**943 08 06 13**

**ETXERA ERAMANGO DIZUGU**



**ESKELA ZERBITZUA**  
**uztarria.eus** -en



**Carmona Ehorztetxea**

**Pablo VI, 7**

**Asteko egun guztietan  
24 orduko zerbitzua**

**Telf: 943 15 15 14  
Mobila: 629 43 42 67**



**Uztarria**

**Perez Arregi 1, behea  
Astelehenetik ostiralera,  
09:15-13:15  
15:00-19:00**

**Telf: 943 15 03 58**

**30€**

||| HIZKUNTZ ESKUBIDEAK |||



## ▲AZPEITIERA ETA GAZTELANIA 'BATUA'.

'Ebakiye,' 'hutse,' 'infusiyuek'... Herriko kafetegi honetan kontsumitutako gosarien deskribapena azpeitieraz idatzita dago fakturan. Alabaina, gainontzeko informazio guztia gaztelania 'batuan' dago. Gaztelaniaz dagoen fakturaren partea euskalkian jarri edo euskara batuan jarri, hori izan daiteke hurrengo urratsa. 📎 **Uztarrria.** 🐸 **Herritar bat.** ✨



Olatz Alkorta.

|||ESANA DAGO|||

III “Asko gustatzen  
zaizkit kolore  
biziak eta argiak.  
Jendeak dio koloreak  
aldartearen arabera  
aukeratzen direla,  
baina ez dut uste  
hori horrela denik”

OLATZ ALKORTA  
margolaria

III “Gerra batek  
filosofia guztia  
aldatzen dizu”

III “Aita ezkerrekoa zen, abertzalea; ama ere bai. Ni beti izan naiz zerbait egitekoa. Herria askatzeko, norbera askatu behar da, eta horretarako burua askatu behar da”

**MIREN ODRIUZOLA**  
internazionalista




# Ama hizkuntza

**Z**apatariaren biloba naiz. Epertzelaia zapataria zen nire aitona. Horregatik, askotan entzun dugu gure etxean Errezilgo zapatariaren kondaira. Ari zela, ari zela, zapatak egiten ahaztu zitzaion zapatari akerraren istorioa. Azken boladan, sarritan burura datorkidan kontua da. Eta beti euskarari lotuta. Ez dakit ikasteko beste hizkuntzak baino zailagoa ala errazagoa den gure hizkuntza zaharra; daki-dana da, neketsua eta astuna dela norbere ama hizkuntzaren erabilera egokiaz etengabe zalantzaz josia egotea.

Jakinekua da gure gaitasuna mugatua dela

eta zenbat eta euskara zuzenagoa erabili nahi izan, zailtasun gehiago ditugula. Baina iruditzen zait hori ez dela kontua. Agian, nire autoestima arazoa izango da, baina uste dut norbait euskaraz ari den guztietan, wassapeko auto-zuzentzailea bezala, badagoela norbait zure jarduneko akatsak zenbatzen ari dena.

Lehen, xapoon euskara traketsa zela entzuten nuenean (Goierrikoena eta tolosaldekoena, haiena bai goxoa), haserretu egiten nintzen. Orain gazteen euskara maila kaxkarrak dela entzuteak amorratu egiten nau. Ho-



txetxu urbieta

betu litekeena hobetzen saia gaitezen, baina era baikorrean, beti arantzak azpimarratu beharrean tarteka lora lirainari lehentasuna emanaz. Garaian garaikoa. Edo, orain 200 urteko gure idazleen lanek EGA gaindutuko ote lukete?

Euskalduna izateak ez nau harrotzen, euskara maitatu eta euskaraz amets egiteak, bete egiten nau. Erabili maite dugun euskara konplexurik gabe, eta azpeitiarron eran bada hobe. Ladutxek kantatuko lukeen bezala, 'zer litzateke Euskal Herria azpeitiarron jardunik gabe'.✕

## IKUSTEKOAK



### ▲ SAN SEBASTIAN ONDORENGO AJEAK.

Parrandaren ondorenak utzitako ajeak begibistakoak izan dira beste behin ere. San Sebastian Egunean, goizean, Euskal Herria auzunean burnizko hiru pibote eraitsita azaldu ziren, ustez auto batek botata. Txikizio guztiak, ordea, ez dira apropos egindakoak izaten; batzutan, nahigabe, gauza ez izanaren poderioz gertatzen dira horrelakoak. 🐞 Ainitze Agirrezabala✕

## URTARRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



### Azpeitia-Hazparne

**SENIDETZAK, 3o URTE.** Azpeitia eta Hazperne anaikidetuta (arrebakidetuta? nebakidetuta?) gaudenetik gero eta ekintza gehiago eta aberatsagotan dihardugu. Azkena, bost etapatan egitekoa den ibilaldi arrakastatsua. Kantuan ere elkarrekin badaramatzagu urte batzuk Santiyo egunean. Pixkanaka-pixkanaka iparra eta hegoaren muga apurtzen ari garelakoan nago. Ez al duzue ala uste



### Natul Euskara Taldea

**AZPEITIA HITZEN ALT XORRA.** Natul-natul hitzeite omen deu azpeitiarrak eta natul-natul jarraitu asmoz, guriak dien hitzek galdu ez ditezen eskau digube bialtzeko dakizkiunek. Nik neuk zerrendatxo bat bialuyobet: atzeko kurrunperie, mari lasarte, txupasi en ibili, melonperakue, oilo-habiye, txori-tranpie, panderue, erdi kaleko festak... Gaztiauek zeatenak ba al dakizue hauek erabiltzen?



maite garmendia



### Helduen danborrada

**HOTZ.** Oso balorazio ona eman dio Udalak aurtengo danborradari. Neuk ere balorazio ona ematen diot, parte hartu eta primeran pasatu dudalako, giro ona egon delako. Aurtengoan, gainera, gure taldeak bitan jo du. Baina Udalari eskaeratxo bat. Datorren urterako mesedez ez programatu horrelako hotzik, hanketako behatzak orainxe ari zaizkit eta bere onera etortzen.



### Hemen dator korrika

**IKA, IKA, IKA...** Ihauteriekin neguko jaiei adio esango diegu, eta udaberriarekin batera Korrika berriro. Euskal Herriko lurralde denetatik igaroko da euskarari hauspoa eman nahi dion jai nazionala. Apirilaren 5ean izango omen da Azpeitian. Hor egongo gara berriz ere biurtero bezala, udaberriarekin indarberrituta laisterka pixka bat egiteko prest.✳

## INKESTA

tatuajerik ba al duzu? Edo egiteko asmorik bai?

Ainitze Agirrezabala

INAKI ESNAOLA

31 urte



“Ez daukat, eta egiteko asmorik ere ez. Gustatzen zaizkit, baina

marrazki bakarra izan dadila, eta ezkutuko lekuan. Ez beso osoa bete; azala ikus dadila, alegia. Tatuaje koloretsu horiek ere ez ditut gustuko.”

MARIAJESUS AMENABAR

53 urte



“Tatuatzaile batzuk egundoko eskua dute, eta artelan onak

egiten dituzte, baina neu ez nau tentatzen, eta ez da orratzari beldurra diodalako. Ilea kolorez aldatzera animatzen naiz, baina hortik aurrera...”

JANIRE CRUZ

28 urte



“Ez daukat tatuajerik, eta egiteko asmorik ere ez dut,

momentuz. Besteren gorputzean ikusteko gustatzen zaizkit: besoak tatuajez beteta dituztenak, adibidez. Inoiz ez nuke tatuatuko bikotekidearen izena, ezta inoren aurpegirik ere.”



## Inauterietako sena

Danborren oihartzunak isildu berri direla, jai egutegiak atsedetik ez digu ematen, eta inauteriak ate joka dauzkagu.

Inauteriak munduan zehar erroturiko festa paganorik zaharrenetarikoa dira, eta jatorria bilatzeko 5.000 urte atzera joan beharko genuke, antzinako Sumeriara. Gaur egungo inauteren kontzeptua, aldiz, erromatarren garaitik dator, Bacoren omenez ospatzen ziren jaietatik, alegia.

Iluntasunaren garaia den bukaera datorrela aldarrikatzen da, lurra esnatu eta beste ziklo oparoagoa hastera doalarik.

Kristautasunak berera ekarri arren, inoiz ez du guztiz lortu bere izaera askatzaile eta katartikoa itzaltzea, injustizia handiko garaietan botereari aurka egiteko tresna bihurtzea baizik.

Gaur egun nire jairik gustukoena den arren, heldutan azaleratu da nire inauterietako sena, Azpeitira etortzen hasi nintzenean, hain zuzen.



chusemi vicente

Zaragoza bezalako hiri handietako inauteek jai inportatuaren kutsua daukate, euren presentzia ez baita nabaritzen hiriko bizitzan. Kalez jantzitakoak gehiengoak dira, eta zenbait tabernetako giroa eta udalak antolatutako desfilea alde batera utziz gero, egun normal bat dela pentsa daiteke.

Hori dela eta, urteetan zehar inauteriak festa arrotza izan ziren niretzat, hainbat zoro lotsagabe entzat baino ez zela pentsatuz.

Baina nire aurreiritzi guztiak albo batera gelditu ziren Azpeitiko inauteriak bizitzen hasi nintzenean. Umorea eta jatortasuna oinarri harturik, azpeitiarrek grinez ospatzen dituzte inauteriak, herriko ezkontza erraldoia den elegante egunetik astearteko gaupaseroak etxeratu arte.

Festa giroan murgildu eta urteen poderioz, lehen-go gutxiespena zaletasun bilakatu da nigan. Hustu ditzagun ganbarak! Dantzan jar ditzagun jostorrazak! Hementxe direla inauteriak!\*

galDETZEN hasita, sansebastianetako arrakasta eta gero, udalak jarriko al du udan txu-txu trena? Uztarria

## Luther-en urtea

Luther-en urtea” dugu iragan urriaren 31tik datorren urriaren 31ra, orduan beteko baitira 500 urte Luther-ek induljentzia-salmentaren aurkako 95 tesi sonatuak zabaldu zituenetik, sekulako arrakastaz.

Zer dira, bada, induljentziak? Orduko eta gaurko eliz doktrinak irakasten duenez, Jainkoak apaizaren bidez bekatuak barkatzen dizkigunean, “erru-hondar” bat geratzen da, hil eta gero purgatorioko oina-zetan ordaindu beharrekoa; zor hori, ordea, ezaba daiteke –norberarentzat nahiz norberak nahi duen hildakoarentzat– induljentzia irabaziz, deboziozko zenbait ekintza eta beste zenbait baldintza betez. (Halakoak duela 500 urte irakastea, tira, baina gaur?)

Leon X.a, orduko aita santua harago joan zen. Vatikanoko San Pedro basilika arranditsua eraikitzen ari ziren. Sekulako dirutzak behar. Nondik atera? Modu erraz bezain itxuragabea asmatu zuen: Europa guztian induljentziak saltzea. Zenbat diru, hainbeste induljentzia. Zenbat eta diru gehiago, hainbat eta



joxe arregi

purgatorio-urte gutxiago. Diruak kutxan tintin egin orduko, purgatorioko arima errukarria zerura airean.


Praktika lotsagarri haren aurka altxatu zen Luther, teologia-irakasle distiratsua. Aita santuak zorrotz erantzun zion: bere tesiei uko egiten ez bazien, eskumikatu egingo zuela. Luther-ek eutsi egin zion, eta aita santuak eskumikatu. Printze eta jende askok jarraitu zioten, eta han abiatu zen Elizen Erreforma.

Oker handirik gabe esan daiteke, Nazaretoko Jesusen Galileako herrixka pobreetan bihotz berri eta mundu berri baten amets ederra hots egin zuenetik, eliz gertakari garrantzitsuen izan dela. Areago: harrezkerotik gaurdainoko historia politikoa eta kulturala –Europar ez ezik, munduan– ez dago ulertzerik Luther-ek bultzaturiko Erreforma gabe. Esate baterako, erlijio-askatasuna eta erlijio-gerrak, biak.

Halere, Jesusen Ebanjelioa egungo munduan ulertu eta biziko badute, Luther-ek egindakoa baino jauzi handiagoa egin behako lukete gaur Eliza kristauak.\*

HAU HOLAXEENK

marpatu isarrai-ka atea  
(Udalaren jabetzako herri lurretatik atera gabe)



## Atera, atera...

**H**urritz, maraka bat daukazu esku artean. Amak prestatu dizun perkusioak ez du parakorik: ur botila barruan garbantzua dabil-tza saltoka. Zuk besotxo horretan gordetzen duzun indar guztiarekin eragiten diozu, raka-raka-raka...

Kolpearen magia deskubritu zenuenetik ez dago gure belarri mintzentzat zure jostailuek zurezko zoruaren kontra ateratzen duten hotsa baino musika gozoagorik. Isilik dagoe-na hila badago, ederki erakusten duzu hemen zein dabilen bizi-bizi.

Zarataren zera hau zure protesta egiteko

modua izan daitekeela pentsatzera etorri-naiz. Hau da, ez si eta ez no, Argentinako ka-zeroladak ekarri dituzula etxera. Azken helbu-rua zein duzun asmatu ezin badut ere, aitortu behar dizut Buenos Airesko Plaza de Mayo inguruan biltzen zirenek politikari argentina-rreri eragindako hotzikararen adinakoa sentia-razten didatela zure zartateko erritmikoe.

Egia da, hemen ere badira etxeko kazola edo zartagina hartu eta kolpeka hasteko nahi beste motibo. Negu erdian argindarra neurri-gabe igotzea, Donostiako 84 urteko gizon baten etxe-gabetzea, Osakidetza-ko murri-

keten eraginez Galdakaoko ospitaleko pasi-lloak ohez beteta ikustea, euskarazko prent-sari kendutako diru-laguntzak, Garoña berri-ro irekitzeko mehatxua... Bakoitzagatik doze-na kolpe emango bagenizkio zartaginari, gaupasa egiteko adina lan genuke.

Hurritz, laster ditugu Kaldereroak Azpeit-ian. Aska genitzake bertan bion burrundara-ko grinak, pare ederra osatuko genuke. Jo dezala bakoitzak nahi duen horren alde edo kontra, eta elkarrekin sor dezagun azalean oi-loipurdia ateratzeko moduko musika kakofo-nikoa: ta-ta-ta, ta-ta-ta, ta-ta...\*



|||||xabi borda|||

## Erotikan Plax!

|||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitz-eko kideak)|||



**E**rik Etxeberriari egokitu zaio hil honetan 'Erotikan PLax!' atale-ko sexu-galderei erantzutea.

**Nondik datorkizu sokamutil izateko afizioa?**

Txiki txikitatik izan dut gustuko. Gure amona oso zezenzalea zen. Gogoratzen dut, Miserikordia aurrean, barandila berde haien atzean, han egoten zela ordubate lehenago zezena noiz agertuko zain.

**Sokamuturrak bezainbeste-ko garrantzia al du sexuali-tateak zure bizitzan?**

Ez dira konparagarriak. Baina bai, biak dira niretzat garrantzitsuak.

**Gaur egun gazteen artean sexualitateaz lasai eta pa-txadaz hitz egiten dela esan-go zenuke?**

Lagun artean bromak eta adar jo-tzeak asko, baina gero serio hitz egiterakoan, oraindik natural ez dugula hitz egiten esango nuke.

**Nondik eta nola gustatzen zaizu sokari heltzea?**

Aurreko puntatik, eskubiko eskua-reen eta gogor.

**Zezena gidatzea da zure**

|||ERIK ETXEBERRIA|||

**Jaio.** 30 urte.  
**Herria.** Azpeitia.  
**Bizitokia.** Azpeitia.  
**Lanbidea.** Tornularia.



**funtzioetako bat. Oro har, zure bizitzan jendearekin harremanean gidatzeko rola hartzea duzu gustuko?**

Ez, ez nuke esango. Momentu edo kasu batzutan hartzen dut paper hori, baina orokorrean denon artean gidatzea gustukoago dut.

**Soka gehiegi tiraz gero, eten egiten da. Nola mantentzen da harreman baten soka osasuntsu?**

Bakoitzak bere aldera tiratzea ondo dago, baina beti tamainan, eta elkar zedituz.

**Inoiz harrapatu zaitu zeze-nak?**

Eskolan azterketa garaian, beti az-keneko momentuan zezenak ha-rrapatu arte.

**Sokaneskak noizko?**

Lehenbailen, hurrengo urtean ber-tan bada, hobe. Ederra litzateke. Nik gustura pasako nioke errele-

boa neska bati. Bat gehiago izan-go litzateke.

**Haurtzaroko une bat?**

Nire anaia jaio zenean.

**Txoko erotiko bat?**

Sistiaga erreka.

**Jaki estimulagarri bat?**

Txokolate beltza.

**Abesti bat?**

Laboaren 'Izarren hautsa'.

**Usain goxo bat?**

Ume jaio berriaren usaina.\*

|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua  
[www.azpeitikoudala.eus/sexu](http://www.azpeitikoudala.eus/sexu) 688897920  
Hitzorduak, otsailean: hilaren 8an  
(16:00-19:00) eta 18an (10:00-13:00).



### ▲ ARROPA BILKETA.

Urtebete baino gehiago da Elkarguneko egitasmoaren baitan, arropa bilketa eta banaketa martxan jarri zuela Elkar-ekinek. Geroztik, sekulako arropa pila bildu dute, eta herritar talde bat arduratzen da jasotako guztia antolatzeaz eta banatzeaz. Arropa nahiz mota guztietako material erabilgarria dohaintzan eman nahi duten herritarrek hiru gune dituzte horretarako: Soreasuko Elkargunean, ostiraletan, 16:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan 10:00etatik 13:30era; Plaza Txikiko Gazte Informazio Bulegoan, goizez, egunero, 10:00etatik 13:00etara, eta astearte eta ostegun arratsaldeetan, 17:00etatik 20:00etara; eta Artzubiko Iraurgiren Haur Hezkuntzako eraikinean. Bidaniatik, Goiazetik eta Errezildik ere ekartzen diete arropa. Argazkian, herritar bat arropaz betetako poltsa Gazte Informazio Bulegoan uzten.

# Arropa, eskuz esku

Elkarguneko proiektuaren baitan, herritar talde bat arduratzen da arropa jasotzeaz, txukuntzeaz eta banatzeaz. Horra prozesua, irudietan. 📷📖 Ainitze Agirrezabala



### ▲ ARROPA BERIKUSI ETA SAILKATU.

Jasotako arropa guztia banan-banan berrikusten dute. Balio ez duena bota egiten dute, zikina dagoena garbitu eta hemen janzteko modukoa ez dena kooperazio taldeetara bideratzen dute. Ondoren, generoaren, adinaren eta urte sasoiaren arabera, kaxetan sailkatzen dute arropa. Argazkian, Maje Rezola, Maria Luisa Irulegi eta Juani Amenabar arropa berrikusten.

### ► GARBITZEN.

Herritarrek emandako arropen artean denetik aurkitu dutela dio Irulegik: "Labatiba, bankuko libretak, eskriturak, argazkiak, estreinatu gabeko arropa etiketa eta guzti, hautsitako arropa...". Luzaroan gordetako arropek lizun usaina izaten dutenez edo zikinak ere jasotzen dituztenez, Elkargunean bertan garbitzen eta lehortzen dituzte.





### ▲ **BANAKETA, AZPEITTIK KANPORA.**

Hemen erabilgarri ez den arropa hainbat kooperazio taldeen bidez munduko txoko ezberdinetara bideratzen dute, besteak beste, Senegalera, Paraguayra, Greziara eta Saharara. Guzti horiez gain, Donostiako aterpetxera eta Lakabe herri okupatura ere bidaltzen dute. Argazkian, Iñaki Lizaso Paraguayra bidaltzeko kaxak kargatzen.

### ▼ ► **IZARAK, MANTAK ETA OINETAKOAK.**

Arropaz gain, izarak, mantak eta oinetakoak ere ematen ditu jendeak dohaintzan. Neguan, manten eskaria handia izan dela azaldu dute. Oinetakoak, berriz, neurrien eta urtaroaren arabera sailkatzen dituzte.



### ▲ **BANATZEKO PREST.**

Generoaren eta urtaroaren arabera sailkatutako arropa arropategian gordetzen dute, ondoren erabiltzaileei banatzeko. Neurri batzuetan soberan jasotzen dute arropa, baina premia handiena 7 urtetik 13ra arteko adin tartean dagoela aitatu dute. Era berean, beharra duten familien kopuruak gora egin duela diote. Argazkian, Rezola, Irulegi eta Anamari Campos. Mila Landa ere aritzen da bolondres.





### ▲ **BIGARREN ESKUKO ARROPA, SALGAI.**

Elkar-ekinen gastuei aurre egiteko, Elkargunean oso modu onean salgai jarri dute hainbat arropa. Irudian, bi bolondres arropak zintzilikatzen eta prezio txartelak jartzen.

### ▼ **ARROPA BANAKETA.**

Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuek bideratzen diete herrian beharrik handiena duten pertsonen zerrenda. 2015eko urritik 2016ko uztailera, 106 familiak (409 herritar) jaso zuten arropa zerrenda horren bidez. Guztira, hiru banaketatan, 810 pertsona "goitik behera" jantzi zituzten.

Argazkian, erabiltzaileak txartela erakusten eta dagokien arropa jasotzen.



**P**ertsona batek jaten duena aztertuz gero, haren izaera ezagutu daitekeela diote. Edo, alderantziz ote da? Norberaren izaeraren arabera aukeratzen ote da elikadura mota? Elikatzeko modua dieta hutsa baino haratago, bizitzeko filosofia dela diote hainbatek. Azpeitian ere badira barazki-jaleak, beganoak eta elikadura makrobiotika egiten dutenak.

## MARIAN FABRIQUE

||| **Adina.** 49 urte. ||| **Elikadura modua.**

Makrobiotika. ||| **Noiztik.** Duela 26 urtetatik.

“Yin eta yang, hori da bizitza”

“Nire senarra, Joxe Mari Etxenagusia, pilotari profesionala zen, eta urte batzuk zeramatzan osasunez gaizki. Frontoira joaten zen pilotazale batek aholkatuta ezagutu genuen Rene Levi makrobiotika Europan zabaldu duen maisua. Frantziako Saint Gaudens herrian dago. Aterpetxe modukoa da, eta asteburua pasatzera joan ginen. Zentroan sartu orduko esan zion: ‘Puf, odola ura bezala duzu’. Jatekoa eskaini ziguten, hitzaldi bat entzun genuen, eta Joxe Mari hara itzultzeko gogoz geratu zen. Hala, egun batzuk pasatzera joan ginen: makrobiotikaren filosofia ezagutu genuen, kozinatzen ikasi... Dieta zorrotza jarri zioten, baina okerrera egin zuen. Donostiara itzuli, analitika egin, eta leuzemia zuela esan zioten. Azkar ospitalean ingresatzeko agindu



Marian Fabriquek makrobiotikako aukera zabala prestatu du erreportajerako: miso zopa, kuskusa gomasioar

# Zer jan, hura izan

Bizitzeko filosofia bezala elikadura barazki-jalea, beganoa eta makrobiotikoa ardatz dituzten herritarren esperientziak jaso ditu Uztarriak. 🍴👁️ Ainitze Agirrezabala



ekin, bainak, dilista gorriak, eta azalorea eta antxoak tenpura. Postrerako sagar errea. |||Ainitze Agirrezabala

zioten, baina Reneri deitu, lana eta dena utzi, eta elkarrekin Frantziara joan ginen. Erabaki bat hartu behar duzu eta zaila da, baina Joxe Marik garbi zuen han jarraitu nahi zuela. Zortzi hilabete egin zituen; ni bueltaka ibili nintzen. Etxera itzuli eta lehen urteetan, beldurragatik, oso zorrotz jarraitu genuen dieta, bekaturik egin gabe. Pentsa, 1993an ezkondu ginen eta Jose Marik bodara bere jatekoa eraman zuen. Apenas genuen bizitza soziala. Orain ja bai, eta familiako bazkariren bat-edo dugunean instintiboki badakigu zer-nola jan. Kakotx artean, garairik zailenak harrapatu genituen. Duela 26 urte, makrobiotika aipatu eta jendeak uste zuen sekta zela. Arraroak ginen. 21 eta 17 urteko bi seme-alaba ditugu, eta etxean 1991tik makrobiotika egiten dugu. Geroztik, arrazoi desberdinak medio, gure esperien-

tzia ezagutu duen jende asko bideratu dugu Frantziara. Gaixotasunagatik-edo makrobiotika egin behar baduzu, jar zaitez aditu baten eskuetan, inoiz ez zeure kasa.

Elikadura makrobiotikoaren oinarria, batez ere, zerealak dira, integralak eta ekologikoak. Barazki zopak eta potajea ere bai. Arrain pixka bat, haragi txuria oso-oso gutxi eta gorria batere ez. Eta fruta garaikoa eta bertakoa. Gure etxean ez dago esne konbentzionalik, edari freskagarriarik, gozo gauzarik. Aurrez prestatutako jakiak saltzen dizkigute, eta horrek guztiak gaixotasunetara garamatza. Interes asko dago horren atzean, medikuntzatik hasita. Haiek gaixoak behar dituzte, eta gizarte eredu honekin gero eta gaixo gehiago egongo da. Orain, modan dago makrobiotika, eta nik ikusten dudana da zerbait modan

## |||BIZI-FILOSOFIAK|||||

Bizitzeko hainbat elikadura modu daude. Haietatik hiru sakondu ditu Uztarriak erreportaje honetan.

### BIZITZEKO ELIKADURA MODUAK

**Makrobiotika.** Yin eta yang elikagaiak bereizten dira, eta horien arteko oreka bilatu behar da ongizatea eskuratzeko. Bereziki, zerealak, horien artean arroza, lehenesten dituen elikadura da, orekarako beste barazki eta labore naturalak erabiliz. Aldi berean, tratamendu kimikorik gabe hazitako, eta ahal bada, prozesu industrialik gabeko elikagaiak gomendatzen ditu. Makrobiotika George Oshawa japoniarrak (1893-1966) landu, aurkeztu eta eman zuen aditza.

**Beganismoa.** Animalienaganako errespetuan oinarritutako bizimodua eta filosofia da, Ingalaterran 1944an sortua. Antropozentrismoa, hau da, gizakia ororen gainetik jartzea arbuizten du. Animalien eskubideen alde eta haien esplotazioaren kontra egiten du, eta begano gehienak barazki-jale zorrotzak dira. Animalia jatorria duen produkturik (arrautzak, esnekiak, eztia...) ez dute kontsumitzen.

**Begetarianismoa.** "Begiak dituzten izakiak ez jatea" da oinarri nagusia. Begetarianismo barruan joera desberdinak daude, baina, oro har, animaliekiko errespetuan oinarritzen da. Horren arabera, barazki-jaleek ez dute animalien erabilera onartzen, ez jateko eta ez dibertsio iturri moduan ere. Begetarianismoa oso kontzepzio zaharra da. Indian eta antzinako Grezian aurkitzen dira lehen testigantzak.

jartzeak filosofia galtzea dakarrela. Jendeak makrobiotika erremedio bezala hartzen du, baina ez da medizina, bizitzeko filosofia baizik. Beti bilatu behar duzu elikaduren arteko oreka. Yin eta yang; hori da bizitza, oreka".

## ANDER LARRAÑAGA

|||Adina. 21 urte. |||Elikadura modua. Barazki-jalea. |||Noiztik. Duela urte eta erditik. "Bizi estilo bat da"

"Esnekiak kontsumitzea utzi nuen aurrena, duela bi urte. Esneak ez dit inoiz onik egin. Esnea uztea ez zitzaidan batere kostatu; bai, ordea, esnekiak: gazta, jogurrak... Baina oso egoskorra naiz, eta zorrotz eutsi diot hartuta-

ko erabakiari. Harrezkero, mokoak-eta gutxiago ditut. Animaliekiko errespetuaren kontzientzia betidanik dut, eta duela urte eta erdi erabaki nuen haragia eta arraina ere dietatik kentzea. Saiheskia edo txuleta eder bat kentzea pixka bat kostatu zitzaidan, baina hau ez da aldi baterako dieta, bizi estilo bat da.

Barazki-jaleengatik neuk lehen esaten nuen: 'Puf, horiek tomatea eta letxuga bakarrik jango dute'. Baina konturatu naiz aukera zabala dagoela. Dena ekologikoa jaten saiatzen naiz, baina oso garestia da. Gurasoenean bizi naiz, eta etxean haragia jaten dute, baina familian inoiz ez da oztopoa izan begetarianoa izatea. Aitak komentarioak, beti: 'Orain ere jango hukek txuleta eder bat!'. Noski, nire gorputza ohituta zegoen 18 urtean haragia jatera, eta haragia kendu eta bi asteira anemia gogorra izan nuen. Berez, onena da dietatik haragia pixkanaka kentzea, baina zorrotz moztu nuen. Hor oreka bilatu behar da: batetik kentzen duzuna, bestetik lortu. Xerrak dituen proteinak kinoa entsaladatik lor ditzakezu. Begetarianoa naizenetik, garbiago jaten dut, gorputzak errazago digeritzen du, komunera joateko hobeto moldatzen naiz, eta gutxiago gaixotzen naiz.

Etetik kanpo jaterakoan inoiz ez da muga izan barazki-jalea izatea. Azkenean, urdaiazpikoa beharrean esparragoak jaten ditut, eta haragiaren ordeztu, tortilla. Ez da duela hamabost urte bezala. Gaur egun, jatetxeak eta ta-

bernak prestatuta daude. Pixkanaka, kultura ere zabalduz doa. Europan zehar bidaiatu dut, eta zenbait herrialderekin alderatuta, oraindik oso atzeratuta gaude. Hainbat herri-tan supermerkatu handiak daude barazki-jaleentzat egokituta. Hemen, berriz, txoko bat, pasillo bat besterik ez dugu.

Autodidakta naiz, baina dieta begetariano orekatua egitea oso zaila da. Hasiberrian, produktu asko eta asko ez dituzu ezagutzen, asko informatu behar duzu, baina jakin egin behar da Interneten informazio egokia aurkitzen. Nutrizionista begetariano batek aholkatuta, egunean hirutan, jatorri begetaleko 1.000 produkturen proteinak xehetuta dituen elikadura-osagarria hartzen dut. Kontua da justukoa sarri jatea, sagardoa bezala".

## AINHOA REZABAL

|||Adina. 22 urte. |||Elikadura modua.

Beganoa. |||Noiztik. Duela bi urtetatik.

"Jarrera politikoa da"

"Beganismoa ez da dieta bat, animalien erabilera oro ukatzen duen jarrera politiko bat baizik. Sentitzeko ahalmena duen norbanako oro errespetatua izan behar dela defendatzen dugu. Beganismoak animalien askapena bilatzen du, eta 19 urte nituenean Donostiako Askekintzan hasi nintzen militatzen.

Gure etxean betidanik kontsumitu da haragi asko, baina animaliekiko nire jarrera aldaketa 16 urterekin hasi zen. Jabetu nintzen animaliak ez genituela norbanako bezala errespetatzen. Funtzio bat betetzeko genituela, objektu bezala. Hala, 16 urterekin haragia kendu nuen dietatik, eta geroztik, ez dut inoiz haragia jateko tentaziorik izan.

Animalietatik eratorritako ezer ez dugu jaten: ez arraina, ez haragia, ez esnea eta esnekiak, ez arrautza eta ez eztiak. Lekaleak, frutak, zerealak, barazkiak, fruitu lehorrak... jaten ditugu. Egungo gizartean dena eskuragarri dugu, eta oso erraza da %100ean dieta begetala jarraitzea. Jendeak uste du garestia dela beganoa izatea, belar-dendako produktuak kontsumitzen ditugula, baina hori ez da hala. Egia da, oraindik ere, hiri handietan, Donostian esaterako, aukera askoz ere zabala goa dugula, baina herriko hainbat tabernatan hanburgesa begetalak eskaintzen dituzte, eta bazkariren bat dudanean jatetxean aurrez abisatzen diet beganoa naizela, eta inoiz ez dut arazorik izan.

Nik beti izan ditut ideiak argi, eta nire arrazoiak benetan sendoak direla ikusita, amak eta ahizpak hasieratik errespetatu ninduten. Aitari gehiago kostatu zaio ulertzea, pixka bat tradizionalagoa da eta. Nire esperientziarekin, etxean kontzientziatu egin dira. Gainera, badituzte lagunak beganismoarekin interesatu eta nire esplikazioak entzun ondoren begano



Rezabalen bazkaria: berenjena betea, seitana saltsan eta sagar errea.



Larrañagaren otordua: garaiko entsalada, dilistak eta intxaurreak.

egin direnak. Klean denetik esan didate, baina beganismoaren inguruko hitzaldi asko entzun dut, eta badakit nola erantzun haiei. Adibidez, haragirik jan gabe proteina gabezia izango dudala esaten didatenei azaltzen diet

begetaletatik ere lor ditzakedala. Gakoa da elikagaiak modu egokian konbinatzen jakitea. Egungo gizartean, dieta oso hiperproteikoa egiten da, eta horrek luzera egundoko arazoak ekarriko ditu. Gehiegikerian gabiltza.

Bestalde, etxean katua eta txakurra ditugu. Ez da tokirik egokiena kale etxea animaliak izateko. Askoz ere hobeto biziko lirateke askeago diren espazio batean. Gure animaliek %100 elikadura begetala jarraitzen dute”.

# Bertakoa eta garaikoa

Egungo gizartean, “modu egokian eta orekatuan jatea, denetik eta tamainan jatea” dela esatea “mito hutsa” dela dio Aitziber Aizpuru nutrizionistak. “Bertakoa eta garaikoa jatea” da gakoa.  A. Agirrezabala

**E**uskaldunok garrantzia handia ematen diogu jateari. Mahaia- ren bueltako erritua euskal kulturan ondo errotutako usadioa da. Ikerketen arabera, munduan metro karratuko Michelin izar gehien dituen herria da gurea. Baina gaur egungo gizartean ondo jaten al da? Edo, bestela esanda, zer da ondo jatea?

Aitziber Aizpuru (Azpeitia, 1973) nutrizio aholkulariaren esanetan, orain arte, “modu egokian eta orekatuan jatea denetik eta tamainan jateari” esaten zitzaion, baina gaur egun hori “mito hutsa” da. Gure gurasoen eta aitona- amonen garaian, “denetik jateak beste zentzu bat” zuela dio. “Janari freskoa, bertakoa eta garai-koa, hura zen zutena. Egun, be-

rriz, hori eta beste gauza asko ditugu, baina askotan arreta gehiago jartzen dugu *beste* horietan; produktu prozesatueta, alegia”.

## Bertakoa eta garaikoa

Dieta orekatua eta osasuntsua definizioz, elikagai guztiak dituen litzateke, gaixotasunak saihestu eta gure organismoak ondo funtzionatu dezan. Aizpururen esanetan, “ondo jatearen oinarria dira barazkiak eta frutak, zereal integralak, egoskariak edo lekaleak, kalitate handiko proteinak –arrai- na, arrautza eta prozesatua ez den haragia– eta olio osasuntsuak. Beti bertakoa eta garaikoa”.

Dena dela, Aizpuruk gaineratu du “elikagaien proportzioak eta horien kalitatea zaintzea ezinbes-



Aitziber Aizpuru.  Eliku

tekoa” dela dieta orekatu batean. Beraz, “energia ematen duten elikagaiak –karbohidratoak, proteinak eta gantzak– bakarrik aintza- kotzat hartzea ez da nahikoa”; hau da, elikagaien proportzioak baka-

rrik kontuan hartzen dituen dietak ez du zertan osasuntsua izan behar, batere osasuntsuak ez diren janari desegokiz osatuta bada- go. Kasu horietan, hartzen diren karbohidratoak, batik bat, azukreak badira, eta proteinen eta gantzen kalitatea ez bada ona, dieta hori ez da gomendagarria.

## Altxor handiena, osasuna

Adinaren eta esfortzu fisikoaren arabera dieta aldatu behar den galdetuta, “oinarria bera” dela dio. Elikagaien kalitatea eta kantitatea kontuan izatea “beharrezkoa” da, baina, noski, “beharrek desberdi- nak” dira. “Umeen kasuan, haiek zer jan erabakitzen duten ardura- dunak gurasoak dira. Umeen es- kubidea da elikadura orekatua eta osasuntsua izatea, eta gure ardu- ra ohitura egokiak transmititzea. Modu horretan, altxor handiena oparituko diegu: osasuna”.

Elikagai osasuntsuen aukera egiterakoan, aholku argia eman du: “Azoka gehiago eta super- merkatu gutxiago. Jaten dena be- netakoa izan dadila, gure aitona- amonen elikadura ohiturak eredu hartuta. Bertakoa eta garaikoa”.✱

# BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza  
zaharberritzea  
nahi duzu?



Abercaino poligonioa, 2  
Tel. 943 135 016  
Zarautz

Santiago ezkoa, 12  
Tel. 943 143 443  
Zumai

Erositako etxebizitza  
eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua  
Gremioen koordinazioa  
Epeak betetzea  
Erakusketa handiak

San Juan, 16 edif. AXIRI  
Tel. 943 892 110  
Azkoitia

Gezolaia Kalea, 18  
Tel. 943 149 241  
Zestoa

# Auzoa berpizten

Errekaleor auzo okupatuan bizi dira Amets Cañizares eta Beñat Aldalur. Autogestioa da komunitatearen motorra, eta auzoa biziberritzea xedea. 📌 Maialen Etxaniz

# 5

Oeko hamarkadan Espainiatik Gasteizera lan bila joandakoen bizileku izateko eraikitako auzoa zen Errekaleor. Baina urteen ondorioz, eta hiriaren garapen urbanistikoa tarteko, auzoa eraitsi eta urbanizazio berria eraikitzeko proiektua aurkeztu zuen Gasteizko Udalak, 2000. urtean. Bi urtera, bizilagunen lehenengo lekualdatzeak hasi ziren. Horietako batzuk ez zuten erabaki hura onartu, ordea, eta errekursoak errekurtso, udalaren plana bertan behera gelditu zen.

Auzoa ia hutsik zegoela eta, etxebizitza problematikaren aurrean alternatibak bilatzera bidean, EHUren Gasteizko campuseko hainbat ikaslek Errekaleorren inguruko azterketa eta lanketa bat egin zuten 2012an. Urtebete beranduago, auzo hartako 26. portala okupatu zuten, Errekaleor Bizirik ekimenari hasiera emanez. Mugimenduaren hastapenetan hamar ziren auzoan bizitzen jarri ziren ikasleak, eta gaur egun adin tarte ezberdinetako 150 lagun inguru bizi dira Errekaleorren. Horietako bi dira Amets Cañizares (Azpeitia, 1994) eta Beñat Aldalur (Azpeitia, 1995).

Aldalurrek zein Cañizaresek bazuten Errekaleor Bizirik mugimenduaren berri hara iritsi aurretik, eta bazekiten zeintzuk ziren autogestioan oinarritutako proiektuaren nondik norakoak. Beñat Aldalurren kasuan, unibertsitatean ezagututako lagunak izan ziren proiektua ezagutarazi ziotenak, haiek Errekaleorren murgilduta baitzeuden egitasmoa



Gazte akelarrean, Errekaleorren. ||| A. Cañizares

hasi zenetik. Ikasketak direla eta, lau urte daramatza Aldalurrek Arabako hiriburuan bizitzen, eta azken ikasturtean erabaki du Errekaleorrera mugitzea: "Auzoan egoera onean dauden hainbat logela hustu zirela jakin nuen bertan sartzea erabaki nuen. Beti iruditu izan zait proiektu oso interesgarria".

Amets Cañizaresek ere auzoa okupatu zutenetik ezagutzen du Errekaleor Bizirik mugimendua: "Orain dela hiru urte izan nuen Errekaleorren berri. Orduan etxe bat soilik zegoen okupatuta, eta une hartatik iruditu zitzaidan interesgarria okupazioaren mugimendua, jakinekoea delako gazteok ditugun zailtasunak etxe bateko alokairua ordaintzeko", azaldu du. Hausnartu ostean, azken ikasturtean erabaki du Cañizaresek Gasteizko

auzo okupatuan bizitzen jartzea, eta bertako hainbat biztanlerekin harremanetan jarri zen logela bat eskuratzeko. Hala ere, Errekaleor Bizirik mugimendua "okupazioaz harago" doan proiektua dela azaldu du Cañizaresek, "beste bizi eredu baten alde lan egiten duen mugimendua", hain zuzen.

## Antolatzeko, lantalde ezberdinak

Ehundik gora lagunek osatzen duten komunitatea antolatzea ez da txantxetako egitekoa, eta horregatik, egin beharrak ahalik eta ondoen banatzeko, lantalde ezberdinak daude: azpiegitura, komunikazioa, ekonomia, kultura, okindegia, kopistegia eta elikadura, besteak beste. Aldalurrek azaldu duenez, euren eraikinean bizi den pertsona bakoitza lantalde bateko kidea da, eta horrela egiten dute lanen banaketa. "Nire pisukide batzuk kulturako lantaldean daude, beste batzuk kopistegian, baina nik une honetan ez dut auzoko lantaldeetan parte hartzen, beste hainbat kontuk denbora asko kentzen didatelako". Cañizares, berriz, lantalde ezberdinetan aritu da, ortuan edota azpiegituran kasu, eta guztietan "oso gustura" ibili dela esan du.

Errekaleorren ez dago saltokirik, eta denda formatura hurbiltzen den gauza bakarra martxan jarri duten okindegia da. Auzokideentzat ogia egiteaz arduratzen den taldea okindegiko lantaldea da, eta astean bi aldiz zabaltzen dituzte bertako atea. "Horien la-



Amets Cañizares -argazkian, eskubian- lagun batekin, Gasteizko Errekaleor auzo okupatuko oilategian. ||| Amets Cañizares

nari esker, auzoko bizilagunek ogia jasotzen dugu astean bitan, ekarpen ekonomiko xume baten truke", azaldu du Aldalurrek.

Errekaleor Bizirik mugimenduaren balore-etako bat "elikadura burujabetza" dela dio Cañizaresek, eta hori lortzera bidean auzoan ekoizitakoarekin elikatzen direla esan du: "Elikadura taldea dago, ortuan aritzen den taldea, okindegikoa, oilategikoa... horiei esker Errekaleorren bertan ekoizitako produktuekin elikatzen gara, eta bestela, inguruko baserritarrei erositako produktuekin".

Okindegia eta baratzea ez ezik, kopistegia martxan jartzen ari dira zenbait auzokide. Izan ere, Gasteizko inprenta batek ateak itxi zituen duela hilabete batzuk, eta negozioaren arduradunek material eta hornigai guztiak Errekaleorreko lagunei utzi zizkietela azaldu du Aldalurrek.

Funtzionatzeko moduari dagokionean, Cañizaresek esan du, antolakuntzako gauza teknikoez gain, asko ikasi duela harremanen inguruan: "Askok hitz egin eta hausnartu dugu botere harremanen inguruan, eta ohikoetatik

aparte funtzionatzeko beste hainbat modu daudela ikusi eta ikasi dut".

### Aisialdirako eskaintza zabala

Lanaren poderioz, egun, gaztetxea (lehen eliza zena), zinea, ortua, frontoi estalia, liburutegia, okindegia, taberna edota inprenta dituzte.

Aisialdirako "nahibeste eskaintza" dagoela uste du Cañizaresek. Alde batetik, dantza zein eskulan tailerrak, zine emanaldiak, kontzertuak, bazkariak edota erakusketak dituzte. Bestetik, egunerokotasunari lotuta dauden ekintzak dituzte, eta horiek ere aisialdirako jarduera bezala ikusten ditu: "Azken finean, egiten ditugun ekintzak gure egunerokotasunaren parte direlako eta benetan motibatzen gaituztelako egiten ditugu. Auzoan beti dago zer egina: barazkiak landatzea, pareta bat txukuntzea, ogia egitea... baina nahi dugulako egiten dugu. Beraz, hori ere aisialdi gisa ikusten dut, eta ez lan bezala".

### Desalojo arriskua

Errekaleorreko biztanleek egunerokoa nor-

malasunez bizi dute, baina ez dute ahazten auzoaren jabegoa Gasteizko Udalararen Hirigin-tza enpresarena dela, eta gogoan dute hiru urtetan eraikitakoa edonoiz galtzeko arriskuaren aurrean daudela. "Desalojo susmoak urtero daude, eta horien berri hedabideen bitartez jasotzen dugu gehienetan. Udalararen mezu orokorrak ere iristen zaizkigu, biztanleak lekualdatu nahi dituztela edota ezin dela Errekaleorren bizi", azaldu du Aldalurrek. "Sarritan" iristen zaizkie halako zurrumurruak, eta "alarma piztu" zen azken aldia joan den urtean izan zela gogoratu du Aldalurrek: "Iaz ere egon ziren desalojo susmoak. Badakigu arriskuan gaudela, baina egoera ez da oso asaldagarria, eta nahiko lasai bizi gara".

Errekaleorreko biztanleen aurka zabalik dagoen prozesu judizialaren aurrean, Amets Cañizaresek dio, Errekaleorreko biztanleen "egunerokotasuneko erronka" dela auzo bezala hazten jarraitzea, "auzoa zein proiektua deseraiki nahi dutenek ongi ikusi dezaten Errekaleor bizirik dagoela".\*



**Pinturak eta Parket Laminatuak** f

Pablo VI, 20 • Tel: 943 15 73 25 • [www.xabiermagoak.com](http://www.xabiermagoak.com)



**Alertza Autoak**

943 811 915 - AZPETAIA  
alertzaautoak@telefonica.net

**MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK**



# Azpeitin eta leku gehiagotan

**S**inberguentzako zubia aipatzeaz gain *aizube*, *aizube*, *ekarri al dezube erlojube*? eta antzekoak esaten zizkiguten azpeitiarrek urrestildarroi harrera edo agur umoretsu edo burlatia egin nahi zigutenean. Nola matxinbentatarrek, Goierriekin dugun muga hortakoek, *etxeen*, *laneen* eta horrelakoak esaten zituzten, *klik* eta *klok errealbiko karamelook* esaten genien harla-burlaz. Gure garaiko aratzerrekatarrek frantsesek bezala ahoskatzen zituzten erre guztiak, *ege*, *egeka*, *agdo*... Gaur, eskolak Azpeitian kontzentratzearen poderioz, galduta daude hizkerako ezaugarri horiek ume eta gazteen artean.

Min ematen dit Urrestillako Sanjoanetarako gure herriko gazteek egiten dituzten karteletan nola egiten dieten ihesi euskara idatzia- ren arauai. *Pelota partidue* eta horrelakoak jartzen dituzte karteletan. Dirudienez, ez gauzak behar bezala egiteko alperrez, herri hizkeran edo hizkera adierazkorragoan egiteko uste eta asmotan egiten dute. Nik, agure kaskailu honek, nire artean pentsatzen dut, eta bakarren bati esan ere, hori ez dela Urrestillako euskara, izatekotan ere *pelota partiube* beharko lukeela, Urrestillan "betidanik" esan izan den bezala.

Uste dut zabaldu den ustea, okerra nire iritzian, euskara arautuak edo akademikoak, nazioaren eta naziotarren euskarak, ez duela aski indarrak azpeitiarrez pentsatua indar berdinez adierazteko, euskara batua funtzionarioen tresna fosil bat eta pedanteria literarioak tresna bat besterik ez dela. Ahaztu egiten da euskara batua medio ugaritu eta koalifikatu dela euskal hiztuna, baita Azpeitian ere; euskara batua izan ez balitz ez lukeela euskaraz hitz egingo azpeitiarren hamarrenak ere. Euskara batuaren dohaintza dira Agirre, Aldai, Altuna, Aristi, Borda, Gorrotxategi, Murillo, Otamendi, Segurola eta, ez borondate txarrez, ahazten ditudan hainbeste idazle azpeitiar. Gezurra dirudien arren Az-



|||||||ramon etxezarreta|||

|||Ahaztu egiten da euskara batua medio ugaritu eta koalifikatu dela euskal hiztuna, baita Azpeitian ere

peitiko egungo bertsolaritza ere hizkera batuari esker gauzatu da. Esango nuke azpeitiarrek euskara batuan egin dietela ekarpenik duin eta oparoena euskarari.

## Foro batean aztertzekoa

Ondorioz, kosta egiten zait Azpeitiko euskararen izeneko zenbait ekimen ulertzea, eta "Azpeitiarra eta batuan artien ein nahi deu bereizketie, ez azpeitiarra eta beste euskalki- yen artien" bezalakoak onartzea. Ez diet zintzotasunik ukatuko, ez eta errakuntzarik ere, hanka sartze kaltegarri bat bezala ikusten ditut. Bistan dauzkagun eredu horiek, dudarik gabe, azpeitiarrak dira baina Azpeitiko euskara, izatekotan, beste bat litzateke dialektorik isolatuenean eginda ere.

Ez nuke inor haserretu nahi. Esateko asko dago. Zergatik ez eztabaida sosegatu bat ireki honetaz, foro lasai bat.\*





@Eregi\_LEK



Eregi Euskara Eta Komunikazioa

Ekin  eraiki

 EREGI

## Zerbitzuak

### Marka nortasuna

- Aholkularitza eta kudeaketa

### Komunikazio estrategia

- Komunikazio planak
- Komunikazio kanpainak

### Irudia eta diseinua

- Identitate bisuala: logotipoa eta euskarrien diseinua
- Argitaipenak: liburuak, aldizkariak, katalogoak...
- Seinaleztapena
- Argazkiak
- Ilustrazioak
- Bideoak

### Web

- Web orriak
- Sare sozialak
- Tablet/smartphone aplikazioak

### Harreman publikoak

- Prentsa bulegoa
- Ekitaldiak, produktu aurkezpenak...

### Hizkuntzak

- Testuen erredakzioa
- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara, gaztelania, ingelera, frantsesa, katalana, galegoa...



Goiko kalea, 5 - 3A - 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)



943 08 06 88



eregi@eregi.eus



www.eregi.eus

# Irudhitzen erakusketa

Irudhitzen lehiaketako argazki eta testuekin osatuta kalean da Uztarriaren egutegia. Lehiaketara aurkeztutako argazki eta testu guztiak ikusgai daude Sanagustinen, hilaren 7tik 21era.  A. Agirrezabala

**U**rtea estreinatzearekin batera, Uztarria Komunikazio Taldeak 2017ko egutegia kaleratu du, Irudhitzen argazkilaritza eta literatura lehiaketak utzitako fruituekin. Otsailerako, lehiaketara aurkeztu diren argazki eta testu guztiekin erakusketa antolatu du Uztarriak, Kulturaz kooperatibarekin elkarlanean.

Egutegia osatzeko asmoz, argazkilaritza eta literatura uztartuta Uztarriak aurrenekoz antolatu duen lehiaketara 81 irudi aurkeztu dituzte, guztira. Argazki horietatik epaimahaiak aukeratutako 12 irudi jasotzen dira egutegian. Irudi bakoitza testu labur batez lagunduta doa. Testu horiek lehiaketaren idatzizko atalean parte hartu zuten herritarrek idatzitakoak dira.

Argazki lehiaketa Maialen Etxanizek irabazi du, eta argazki sarituari ipini dion testuarekin irabazi du Izaskun Eigurenek idatzizko

## ||| DATUAK |||||

||| **Zer.** Irudhitzen argazkilaritza eta literatura lehiaketara aurkeztutako argazkiekin eta testuekin osatutako erakusketa.  
||| **Eguna.** Otsailaren 7tik 21era. ||| **Tokia.** Sanagustin.  
||| **Antolatzailea.** Uztarria Komunikazio Taldea, Kulturaz kooperatibarekin elkarlanean.

lehiaketa. 150 euroko saria eskuratu du bakoitzak.

## Lehiaketa, elkarlanean

Azpeitiko Argazki Elkartarekin eta Kultur Mahaiarekin elkarlanean jarri zuen abian Irudhitzen lehiaketa Uztarriak, herritarrek euskarazko edukien sortzaile izateko helburuarekin. Lehendabiziko lehiaketan izan den parte-hartzea ikusita, argazkilaritza eta literatura uztartuko dituen egitasmoak antolatzen jarraitzeko asmoa du Uztarriak.\*

## ||| IRUDHITZEN EGUTEGIA |||||

**81** argazki. Azpeitian ateratako irudiak izatea zen baldintza, eta haietatik hamabi aukeratu ditu epaimahaiak egutegirako.

**15** egunez. Irudhitzen lehiaketako argazkiekin eta testuekin erakusketa antolatu du Uztarriak Sanagustinen, hilaren 7tik 21era.\*

## ||| BESTERIK |||||

## 1 Santa Agedak Matxinbentan

Mus txapelketa, santaeskea, puzgarriak, pailazoak, bertso afaria, herri kirolak... izango dira.

||| **Eguna.** Otsailak 3, 4 eta 5.

||| **Tokia.** Matxinbenta.

||| **Antolatzailea.** Batzordea.

## 2 'Malmö', antzerki obra

Bi lagun arteko traizioa eta mendekua dira abiapuntua.

||| **Eguna.** Otsailak 17. ||| **Ordua.**

22:00 ||| **Tokia.** Soreasu.

||| **Antolatzailea.** Kulturaz.

## 3 Fuel fandango eta DJ Chelis

Flamenkoaren eta elektronikaren fusio dantzagarria, zuzenean.

||| **Eguna.** Otsailak 18. ||| **Ordua.**

23:00 ||| **Tokia.** Sanagustin.

||| **Antolatzailea.** Kulturaz.\*

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: [uztarria.eus/agenda](http://uztarria.eus/agenda)



Uztarriak kaleratu duen 2017ko egutegiaren hainbat ale. ||| **Uztarria**

**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**

**MATRIKULA LIBREA**

**Otsailaren 1etik 15era**

ALEMANA, EUSKARA,  
FRANTSESA eta INGELESA

**MATRIKULA EGITEKO:**  
**[www.eoieibarheo.hezkuntza.net](http://www.eoieibarheo.hezkuntza.net)**

**ARGIBIDE GEHIAGO:** [eoieibarheo@gmail.com](mailto:eoieibarheo@gmail.com)  
943.20.06.18

**Jardiñeta 3, 20600 Eibar**



|||HITZ GEZIDUNAK||||||||||||||||



|                                                                                  |        |                  |                  |   |                  |               |               |                |                        |        |         |
|----------------------------------------------------------------------------------|--------|------------------|------------------|---|------------------|---------------|---------------|----------------|------------------------|--------|---------|
|  |        |                  | Xake jokalariaik | ▼ | Bridekin gidatu  | ▼             | Gizon izena   | ▼              | Bat ere                | ▼      | Alokatu |
|                                                                                  |        |                  | * Deitura        |   | Edari bizi       |               | Emakume izena |                | Donostiako pilotalekua |        |         |
|                                                                                  |        |                  | ▶                |   | ▼                |               | ▼             |                | ▼                      |        | ▼       |
|                                                                                  |        |                  | Anaien emazteak  | ▶ |                  |               |               |                |                        |        |         |
|                                                                                  | Mehetu |                  |                  |   |                  |               |               |                |                        |        |         |
| Inausia                                                                          | ▼      | Mendeku hartu    | ▶                | ▼ |                  |               |               |                |                        |        |         |
| * Izena                                                                          |        | Su armetako katu |                  |   |                  |               |               |                |                        |        |         |
| ▶                                                                                |        | ▼                |                  |   | Bokala           | ▶             | Txinparta     | ▶              |                        |        |         |
|                                                                                  |        |                  |                  |   | Astearen erdian  |               | Hitzarmena    |                |                        |        |         |
| Mahatson-do seil                                                                 | ▶      |                  |                  |   | ▼                |               | ▼             | Bokal biribila | ▶                      | Bokala | ▶       |
| Isolatuta                                                                        |        |                  |                  |   |                  |               |               | 501            |                        | Zati   |         |
| ▶                                                                                |        |                  |                  |   |                  |               | ▼             | Kanpo, landa   | ▶                      | ▼      |         |
|                                                                                  |        |                  |                  |   |                  |               |               | Jardun         |                        |        |         |
| har ezazu                                                                        | ▶      |                  |                  |   | Jaso, goratu     | ▶             |               | ▼              |                        |        |         |
| Gar                                                                              |        |                  |                  |   | Kontso. bikoitza |               |               |                |                        |        |         |
| ▶                                                                                |        | Jatorri atzizkia | ▶                |   | ▼                | Zer lekutara? | ▶             |                |                        |        | Bokala  |
|                                                                                  |        | Kontso-nantea    |                  |   |                  | Bokala        |               |                |                        |        |         |
| Gai ezia eta urkorra                                                             | ▶      | ▼                |                  |   |                  | ▼             |               | Bilo           | ▶                      |        | ▼       |

\* Aizkolarari azpeitiarra



# Egilea: Luma

|||SUDOKUA|||

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   | 4 |   |   |   |   | 5 | 1 |
|   |   |   | 1 | 2 |   | 8 |   |   |
|   |   |   |   |   |   | 3 | 2 | 6 |
|   |   |   | 5 | 8 |   |   |   | 2 |
| 1 |   |   | 7 |   | 2 |   |   | 3 |
| 2 |   |   |   | 4 | 6 |   |   |   |
| 8 | 5 | 2 |   |   |   |   |   |   |
|   |   | 6 |   | 1 | 8 |   |   |   |
| 9 | 1 |   |   |   |   | 4 |   |   |

## ||| UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK |||||

||| JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Otsailak 23 (osteguna) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoaren irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



## ||| LEHIAKETAREN ERANTZUNAK |||||

1 PLAZATIK KENDU DUTE

2 ZER EGIN DUTE

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | T | I | • | A | E | R | K | U | Z | A | • |
| • | A | R | O | N | • | R | A | T | • | U | S |
| U | T | A | P | U | A | • | I | R | O | T | • |
| A | T | • | A | T | U | T | A | R | A | K | A |
| A | • | O | • | I | T | S | A | H | A | M | • |
| R | A | N | I | • | A | • | L | E | K | I | M |
| U | T | A | K | E | O | N | E | M | • | K | • |
| K | A | T | A | N | I | O | K | • |   |   |   |
| A | G | A | N | A | R | R | A | L |   |   |   |
| • | A | • | I | • | B | • | X | • |   |   |   |

SUDOKUA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 9 | 4 | 7 | 5 | 2 | 3 | 1 | 6 |
| 5 | 1 | 2 | 8 | 1 | 6 | 9 | 7 | 4 |
| 6 | 1 | 7 | 4 | 3 | 9 | 2 | 5 | 8 |
| 4 | 8 | 1 | 9 | 4 | 5 | 6 | 2 | 7 |
| 3 | 4 | 5 | 2 | 6 | 7 | 8 | 9 | 1 |
| 2 | 6 | 9 | 1 | 8 | 5 | 4 | 3 | 7 |
| 9 | 2 | 3 | 6 | 7 | 4 | 1 | 8 | 5 |
| 4 | 7 | 8 | 5 | 2 | 1 | 6 | 3 | 9 |
| 1 | 5 | 6 | 3 | 9 | 8 | 4 | 2 | 7 |

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1 Poteatzea 2 Betagarri

|| UZTARRIAREN URTARRILEKO LEHIAKETA ||

IRABAZLEA



Gorka Urbistondo  
Uztarria Komunikazio  
Taldearen bazkidea da  
aldizkariko 190.  
lehiaketaren irabazlea.  
Kutxillo urdaitegiak  
emandako produktu  
sorta irabazi du sari  
gisa. Argazkian  
lehiaketaren irabazlea,  
hainbat produktu  
eskuetan dituela.

**Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak**

Etxeko berezitasuna:  
**Ezkur urdalazpiko Iberikoa**

Erñaut: 656 79 14 10  
Oier: 618 24 01 73  
kutxillo@gmail.com  
Damaso Azkue 6

## |||ARGAZKIA|||||||

▲ **‘AZPEITIA-HAZPARNE. 30 URTE, BI HERRI PAUSOZ PAUSO’.**

Aurten beteko dira 30 urte Azpeitia eta Hazparne senidetu zirela, eta urteurren borobil hori aitzakia hartuta, Lagun Onak MBk Azpeitia eta Hazparne oinez lotuko dituen sei ibilaldi prestatu ditu. Joan den urtarrilaren 14an egin zuten aurrenekoa, Azpeitia-Zarautz artekoa, eta ekaina bitartean hilean behin egingo dute txangoa. Ibilaldira joan ziren lagun guztiek elkarrekin atera zuten argazkia Zarauzko malekoian, 26 kilometro egin ondoren. Lagun Onak MBk eta Hazparnekoek elkarlanean osatu duten egitasmoari zabalkundea emateko, Uztarriarekin elkarlanean ariko dira mendizaleak, bai aurretik eta bai ondoren ibilaldi bakoitzaren informazioa, irudiak zein kronikak emateko. ||||| **Uztarria** |||||

## |||EFEMERIDEAK|||||||

1985

**Anbulatorioa inauguratu.**

Lehen zerbitzuekin hasi ziren.

2009

**‘Kafe’, libre.** Garikoitz

Etxeberría Haikako kide ohiak sei urteko zigorra osorik bete zuten.

2015

**Jose Mari Orbegozo.** Europako pasodobleko txapelduna izan zen.📌 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria.✳

||| **INKESTA** |||

**Non jarriko zenuke gaztaina saltzailearen postua?**

**Perez Arregin.** %19,85.

**Plazan.** %73,16.

**Plaza txikian.** %5,15.

**Beste leku batean.** %1,84.

||| **Oraingo galdera.** Elurretara joandakoan, zein da zure aukera?

**KIMU BAT**  
GARDEN *berria!*

KIMU BAT 25 urte  
Urrestila bidea. Azpeitia  
943 15 00 85

# Edari isotonikoak

## JOANES OTAMENDI ETA IÑIGO UNANUE akademiako irakasleak

**A**zken aldian, mota honetako edarien kontsumoa ikaragarri igo da, batik bat gaztetxoaren artean. Oso ezagunak eta gustukoak dira ume eta ez hain ume direnentzat.

Edari isotonikoen helburua kirolaria likido eta elektrolitoz hornitzea da, eta egoera zorrotzetarako disenatuta daude. Egiten den esfortzua eta iraupena handia denean, gorputzarentzat ura bakarrik ez da nahikoa, eta elektrolito eta erregai energetikoak behar ditugu.

Beraz, edari horiek ez dira guztiontzat, gehienok egiten dugun ariketa fisikoa moderatu samarra delako. Ohiko entrenamenduetan urarekin eta janariarekin nahikoa dugu hornitzeko. Gainera, sodio eta azukre gehiegi hartzeak hainbat arrisku areagotzen ditu, gizentasuna eta txantxarra, adibidez.

Ariketa egin aurretik ondo hidratatuta egotea komeni da. Beraz, kirola egin baino ordubete lehenago ura edan, eta kirola egin bitartean, 15 minuturo trago txikiak. Gero, galdutako litroko, litro eta erdi edatea komeni da. Balore horiek orientagarriak dira, bakoitzak behar desberdinak baititugu, eta tenperatura eta altitudearen arabera ere aldatu egiten da.

Beraz, edari isotonikoak ariketa fisikoko oso intentsoa denean edan, eta bestela ura!\*



aitziber aizpuru



**1. Ikaslearen onena ateratzeko sekretua?**  
Motibazioa.

**2. Gainditu ala ikasi?**  
Gainditzera behartuta egon arren, ikastea da lehentasuna.

**6. Interneten dena dago. Akademiak zertarako?**  
Informazioa bai, baina tutore pertsonalizatuak gara gu.

**3. Hezkuntza eredua...**  
Ez dizkigu ematen tresnak bizitzako arazoei aurre egiteko.

**4. Etxerako lanak...**  
Puff! Karga bat dira.

**4. Zer gai irakasten dituzue?**  
Zientzia gaiak, batez ere.

**5. Irakasteko zer baliabide darabilzkizue?**

Gure jakituria, teknologia berriak, jolasak...

**7. Ikasleen perfila?**  
10 urtetik 40ra. DBH eta Batxilergokoak, batez ere.

**8. Anekdotarik?**  
Zenbait gurasok bonboiak ekarri izan dizkigu, seme-alabek gaunditzeagatik.\*  
Ainitze Agirrezabala

**Ekain**  
ALBAYTERI KLINIKA  
Euzkai Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40  
Lamialdak:  
943 15 16 40

**ostadar optika**  
OPTIKAS - OPTOMETRISTAS  
Jose de Arrese, 17  
Tel. 943-810654  
AZPEITIA  
Jose Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

**Koh Tao**  
OSAGARRIAK  
Foru Hiribidea, 3 • Tel.: 429 485 193  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

**Alar**  
mertzaria  
Leizola Inazio Hiribidea, 9  
Tel.: 638 81 87 78

**ORDULARI**  
Jose de Arrese, 10  
Tel. 943 81 52 44  
20730 AZPEITIA

**Luba**  
abokatuak  
Abokatuak  
Jose de Arrese, 17  
Tel. 943-810654  
AZPEITIA  
Jose Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

**KIRURI**  
JATETXEA  
Loiola Hiribidea, 24  
LOIOLA - AZPEITIA  
Telefonoa: 943 81 50 08  
Faxa: 943 15 03 62

**adi**  
ARTE ETA  
DISEINU  
ESKOLA  
ELKARTEA  
Marraskia eta eskulanak  
(haurrak) 17:30 - 19:00  
Pintura 16:00 - 17:30  
(helduak) 19:00 - 20:30  
Talia 18:30 - 20:00  
Jose Arrese kalea, 3  
943 81 28 08  
artediseinu@gmail.com  
Matrikula urte osoan zabalik

# Zezena, ez sardina

Karnabalak agurtzeko ohitura hedatuena Sardinaren hileta bada ere, Azpeitian, 90. hamarkadan, zezenaren hileta ospatzen zen haren ordezt. 📞 Lorea Seguro

**N**ola izango zen ba sardina, hiletako ikurra? Hemen, zezenak behar zuen", arrazoitzen dute Antton Martinezek (Azpeitia, 1947), Jesus Ruiz de Argandoña *Keutin*-ek (Azpeitia, 1946) eta Ana Mari Egañak (Azpeitia, 1941). Zezenaren hileta antolatzeaz arduratu, eta bertan parte hartzen zuten hiru lagunak. Hiruak oso karnabal zale-

ak izanik, irribarrez gogoratzeko dituzte, atzera begira, desfile haietan bizitakoak.

1994an ospatu zen lehenengo aldiz parodia herrian; Astearte Karnabaleko gauerdian, hain zuzen ere. "Lehenengo urtean ez genuen ordutegiarekin asmatu, beranduegi egin genuen. Astearte Karnabala izanda, jendea nekatuta zegoen, eta, azkenean, geu ba-

karrik ibili ginen kalean bueltaka, ia ikuslerik gabe", azaldu du Egañak. Hala ere, ederki pasatu zutela aitortu dute hiru lagunak. Hurrengo urtean, desfilea 22:00etara aurreratzea erabaki zuten. "Bigarren aldirako, izena hartu genuen. Urte hartan herritar asko hurbildu zen gu ikustera", oroitzen da Martinez.

Udaletxetik abiatzen zen zezenaren hileta,



1994ko zezenaren entierroa, Astearte Karnabal gauerdian. ■ Antton Martinezek utzita



Jesús Ruiz de Argandoña *Keutin*, Ana Mari Egaña eta Antton Martínez, zezenaren hiletaren antolatzaileak. || **Lorea Seguro**



Kartoizko zezena egurrezko oinarrian jarrita ateratzen zuten kalera. || **Antton Martínez**

kartoizko zezena egurrezko oinarrian jarri eta hura sorbaldetan hartuta. Atzetik, segizioa: hogeita hamar bat lagun beltzez eta dotore jantzita, apaizak eta akolitoak, eskuetan kandelak zituztela, eta txaranga. Eliz kalea igarotzen zuten lehendabizi. Hasieran, txaranga *Kyrie Eleison* bezalako abesti tristeak jotzen zituen, denak triste eta negar plantak egiten zituzten bitartean. “Mukizapiak eskuan hartuta, a zer garrasiak egiten genituenak!”, gogoratzeko hiru urtez ospatu ondoren, 1997an bertan behera uztea erabaki zuten. “Gauza hauek horrela izaten dira... Pixkanaka jendea gogoa galtzen hasten da, parte-hartzea gutxitzen joan zen, eta inor berririk ez zen animatu”, azaltzen du Keutin-ek. Martinezek gogoan du lau katu irtetea baino nahiago izan zutela desfilea bertan behera uztea. Zezenaren hileta egiteari utzi zitzaionean, gaur egun ere egiten den suzko-zezenak hartu zuten haren tokia.

Astearte Karnabala neke handiko eguna zen galdetuta, ezetz diote: “Ezta pentsatu ere. Gogo handia izaten genuen hiletarako. Asteartean Ilunpe Pilota Elkartean afaltzen genuen; bertakoak baikenen parodian parte hartzen genuen gehienak. Gero, zezenean ibili eta kalean gelditzen ginen desfileko ordua iritsi arte, festak errematatzeke gogoz”.

### Dolua, hiru urtez

1994an Keutin-ek bazuen jada inauterizale fama. “Horregatik, orduko Udaleko festa zinegotziak proposatu zidan sardinen hileta-

ren antzeko zerbait egitea, karnabalei agur esateko modu ona izango zelakoan”. Udala arduratu zen gezurrezko zezena eta egurrezko oinarria lortzeaz. Akolito eta apaiz arropak, berriz, Parrokian eskatu zituzten. Hasieran, ezezko biribila jaso zutela oroitzen du Martinezek: “Ez ziguten ezer utzi nahi izan, sakrilegioa omen zen desfilea egitea! Zer sakrilegio izango zen, ba?!”. Azkenean lortu zuten, ordea, Parrokiakoak konbentzitzea.

Desfilea hiru urtez ospatu ondoren, 1997an bertan behera uztea erabaki zuten. “Gauza hauek horrela izaten dira... Pixkanaka jendea gogoa galtzen hasten da, parte-hartzea gutxitzen joan zen, eta inor berririk ez zen animatu”, azaltzen du Keutin-ek. Martinezek gogoan du lau katu irtetea baino nahiago izan zutela desfilea bertan behera uztea. Zezenaren hileta egiteari utzi zitzaionean, gaur egun ere egiten den suzko-zezenak hartu zuten haren tokia.

Hala ere, Keutin-ek ez du zalantzarik: “Niretzat, dudarik gabe, karnabaletako unerik onena izaten zen zezenaren hileta! Ikuskizun ederra, benetan”. Gaur egungo suzko-zezenaren aldean, askoz dotoreagoa zen, bere ustez, garai hartako parodia: “Giro ederra jartzen genuen, eta jendea asko gustatzen zitzaion. Oraindik bertan jendea animatuz

gero, aurrez berriz aterako nintzateke. Orain, ordea, zortzietan egingo nuke. Zezena bukatu, eta orduantxe! Asteartean jendea nekata egoten da, eta horixe litzateke orduarik aproposena”. Martinezek uste du lagun talde bat elkartu beharko litzatekeela horretarako: “Polit askoa egingo genuke, baina lau zororekin ez da nahikoa”.

### Mozorroa, debeku

Diktadura garaian, urte luzez, debekatuta egon ziren inauteriak Asteitien eta inguruko ia herri gehienetan. Zezenaren hileta debekua amaitu eta hainbat urte geroago ospakizuna bada ere, Martinezi, Egañari eta Keutini aise etortzen zaie gogora debekuaren garaia, inauteriez hitz egiterakoan.

“Ni lehen aldiz moztortu nintzenean, debekatuta zegoen oraindik”, aitortu du Keutin-ek. Bularretakoak, kuleroak eta etxean bilatutako edozein trapu saltzeko postua jarri zuen plazan, lehen urte hartan. “Udaltzaingoa etorri, eta ni bidaltzen saiatu ziren. Txiripaz, Tolo-sako gizon bat zegoen bertan, ordea. Hura ohituta zegoen bere herriko inauterietara, eta udaltzainei ni bakean uzteko esan zien, ez nintzela eta ezer txarrik egiten ari”. Tolosarririk esker, moztortzera ausartu ziren asteitiarrek festaz gogatu ahal izan zuten. ✱

**LOKALA SALGAI/ALOKAGAI**

Landetan, 100m<sup>2</sup> Erretiroagatik  
Elektrizista negoziatorako erabili izan dena  
harremanetarako: **656 785 802**

**IRENE ALTUNA**  
LOGADENDA

Lotele-Bide, 26 Tel. 943 51 51 87  
www.deltanordenda.com

**INTZA ETXEBERRIA AGIRREZABALA**  
Fisioterapeuta - Osteopata

943 402 807 - 943 551 409 - 943 402 811

## III TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

|                      |          |
|----------------------|----------|
| Udaletxea            | 15 72 00 |
| Udaltzaingoa         | 15 13 13 |
| Suhiltzaileak        | 112      |
| Azpeitia Lantzen     | 15 71 83 |
| Iraurgi Berritzen    | 026069   |
| Nekazal Bulegoa      | 81 24 85 |
| Iturritxiki Ludoteka | 15 11 79 |
| Txiki-Txoko Ludoteka | 15 05 16 |
| Gaztelekua / GIB     | 15 71 61 |
| Lanbide              | 15 04 02 |
| Kiroldegia           | 81 30 69 |
| KIUB                 | 15 72 01 |
| Igerilekua           | 81 41 21 |
| Emakumeen Txokoa     | 15 70 55 |
| Ertzaintza-Azkoitia  | 0837 80  |
| Baigera I            | 81 51 71 |
| Baigera II           | 81 23 89 |
| Epaitegia            | 0251 91  |
| Ingurugiro Etxea     | 81 24 48 |

### OSASUNA

|                        |          |
|------------------------|----------|
| Anbulatorioa           | 0254 00  |
| Anbulator. larrialdiak | 0254 01  |
| Eguneko zentroa        | 15 74 96 |
| Asepeyo                | 8144 00  |
| Gurutze Gorria         | 85 32 97 |
| DYA-Donostia           | 46 46 22 |

### KOMUNIKABIDEAK

|                           |              |
|---------------------------|--------------|
| Uztarria                  | 15 03 58     |
| Hitza (Azpeitia)          | 81 38 41     |
| Hitza (Zarautz)           | 8900 17      |
| Azpeitian Zer?            | 080688       |
| Erlo Telebista (Azpeitia) | 81 53 35     |
| Berria                    | 943 30 40 30 |
| Gara                      | 943 31 69 99 |
| Noticias (berriemailea)   | 687 60 50 06 |
| DV (berriemailea)         | 610 81 29 12 |
| Argia                     | 943 37 15 45 |
| Arrate Irratia            | 943 12 01 73 |
| Euskadi Irratia           | 943 01 23 00 |
| ETB                       | 943 01 17 05 |

### ALDERDI POLITIKOAK

|       |          |
|-------|----------|
| Bildu | 15 72 00 |
|-------|----------|

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Otsailaren 22an izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

|             |              |
|-------------|--------------|
| EAJ         | 81 55 70     |
| Sortu       | 15 72 00     |
| EA          | 81 00 11     |
| Aralar      | 647 42 59 95 |
| SINDIKATUAK |              |
| ELA         | 81 34 46     |
| LAB         | 15 13 56     |
| EHNE        | 81 39 28     |

### KULTURA-EUSKARA

|                      |              |
|----------------------|--------------|
| Sanagustin           | 10 52 20     |
| Kultur Mahaia        | 674 16 56 84 |
| Euskara Patronatua   | 81 45 18     |
| Natul euskara taldea | 661 10 44 46 |
| Udal Euskaltegia     | 81 19 47     |
| Udal Liburutegia     | 15 71 95     |
| Loiolako Liburutegia | 8165 08      |
| Kontseilua           | 943 59 12 00 |
| Bai Euskarari        | 902 43 00 26 |

### IKASTETXEAK

|                      |          |
|----------------------|----------|
| Iraurgi (Betharram)  | 81 16 68 |
| Iraurgi (Milagrosa)  | 8163 80  |
| Iraurgi (Jesuitinak) | 81 22 49 |
| Ikasberri            | 15 12 46 |
| Karmelo Etxegarai    | 81 26 97 |
| Urola BHI            | 15 02 28 |
| Uztaro               | 81 31 90 |

### BESTERIK

|                  |              |
|------------------|--------------|
| Xoxoteko aterpea | 58 10 07     |
| Eregi            | 943 08 06 88 |

## III FARMAZIAK (OTSAILA)

1-8-13-18-19-24

Beristain (Azpeitia).  
943811949

4-5-10-15-22-28

Jacome (Azpeitia).  
943 080258

2-9-16-23

Eizagirre (Azpeitia).  
943811274

6-11-12-17-20-27

Aranburu (Azpeitia).  
943811949

## III ORDUTEGIAK

**UDALETXEA** || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATORIOA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **GAZTELEKUA** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

## III ERABILGARRI



### ▲ BERISTAIN, GAUERO.

2017an, Sanjuandegiko Beristain (Urbite, 3) izango da urte osoko gaueko guardiak egingo dituen, Azpeitirako zein Azkoitirako zerbitzua bermatuz.

### III GARRAIOA

|                |              |
|----------------|--------------|
| ALDALUR        | 943 85 25 87 |
| EUSKO TREN     | 902 54 32 10 |
| GUIPUZCOANA    | 943 85 11 59 |
| PESA           | 943 21 26 99 |
| PIPER ELKARTEA | 943 85 25 87 |
| TAXIAK         | 943 81 13 07 |

|| autobusen ordutegi osoa:

[www.uztarria.com/azpeitia/](http://www.uztarria.com/azpeitia/)  
autobusak

3-7-14-21-25-26

Alberdi (Azpeitia).  
943 815974

GAUEZ, URTE OSOAN

Beristain (Azpeitia).  
943 811949

# ANDREA CANTERA

Palentzia, Espainia

“erraztasunak eman dizkit jendeak integratzerakoan”

Maitasunak ekarri du Azpeitira, eta “oso ondo egokitu” da. Euskara ikasten ari da, hemen geratzeko asmoa baitu.  A. Agirrezabala

**N**olatan zaude Azpeitian?

Duela hiru urte Holandara lanera joanda eza-gutu nuen orain bikotekidea dudana Joel, azpeitiarra. Palentzian urtebetez elkarrekin bizi ondoren, Azpeitira etorri gara. Urte erdia dar-mat hemen, izaera irekia dut, eta jendeak ere erraztasunak eman dizkit integratzeko. Esko-zian, Holandan, Legution... bizitakoa naiz, eta erraz egokitzen naiz egoera berrietara.

**Euskaraz ikasten ari zara. Zer moduz?** Ez dut inposizio bezala hartzen hona etorri naizelako euskara ikasi beharra. Etorkizune-an hemen bizi nahi badut, familia osatu eta in-tegratu, zer gutxiago euskara ikasten saia-tzea baino! Beti entzun izan dut euskara ikas-tea oso zaila eta konplexua dela, baina eus-kaltegian irakasteko duten metodologia oso egokia da, eta gustura ari naiz. Adin eta jatorri kultural desberdineko jendea gaude, eta oso oinarritzotik hasi eta pixkanaka goaz ikasten. Hizkuntza polita da, erromantikoa eta goxoa.

**Azpeititik zer gustatu zaizu gehiena?** Jendea. Joel eta biok Palentzian bizi ginene-an sarri etortzen ginen Azpeitira bisitan, eta beti sentitu izan naiz hemengo jendearen-gandik babestua. Harreman oso ona egin

dut jendearekin. Lekua ere oso polita da. Oso eroso nago Azpeitian. Palentziarekin al-deratuta paisaia zeharo desberdina da. Mendia hiriburutik ordubetera dugu han. Hemen, berriz, bertan dugu Xoxote. Gauza bera hondartzarekin. Lasaora edo Azkoitira dugun bidegorria ere oso egokia da.

**Eta gutxiena?**

Kiroldegiko eskaintza nahikoa oparoa da, baina ordaindu beharreko kuota oso gares-tia. Bestalde, gertatu zait anbulatioria deitu eta hitzordua hurrengo asterako ematea.

**Zer egiten duzu egunerokoan?**

Gizarte hezkuntzan diplomatua naiz, eta osa-sun eta gizarte arreta ikastaroa egin ondoren praktikak bukatu berri ditut Arrasateko Uliaz-pin. Hemen lana bilatzeko euskara ez jakitea oztopoa dela badakit, baina badut esperantza.

**Zer botatzen duzu faltan?**

Familia eta lagunak. Oso gazte utzi nuen etxea, eta pena ematen dit egunerokoan et-xekoekin ez egoteak. Gabonak Palentzian pa-satu ditut, baina hemen hain nago eroso, gero eta gehiago kostatzen zaidala hara joatea. Denbora batez ez joatea erabaki dut, ea har-tara beraiek animatzen diren hona etortzera.\*

1



1. Joel Arellano bikotekidearekin, Iparraldeko hondartza batean. 2. Santotomasetan, lagun artean. 3. Negu txakurrekin, Xoxotera bidean.

320 kilometrora dago Palentzia.



3

# Izekoren liburutik ilobak

**I**zekoren liburua letu izan ez balu, ez zuen jakingo. Baina letuta du, eta orain bai, entenditu du egunkariak dakarren berria. Ilobak ez du egunkaria hasi eta buka letzeko ohiturarik, hartu eta orrialdeak pasatzen ditu, denak, eta interesantea iruditu zaion harexen bila jotzen du egunkariari ematen dion bigarren bueltan. "Munduko bakerik bortitzenean hiltzen" letu eta titular horren azpian sarreratxo bat letu duenean lanean hasi zaio radarra. "Atzoko egunez duela 25 urte sinatu zuten bakea El Salvadorren...". Hori letu eta egunkariak dakarren orrialde osoa letu du, eta seguru nago izekoren liburua letuta eduki ez balu, ez zuela letuko. Duela 25 urte sinatu zuten bakea El Salvadorren, hamabi urteko gerraren ostean, baina oraindik ere indarke-riazko egituraren biktima da, 'mara' ustelkeria eta pobreziaren menpe". Eta lerroetan barrena joan dira irrist ilobaren begi borobil gerraundiak, eta laster egin du txoke izekoren liburuan letutako izenarekin: El Mozote. Ilobak letu duenez Egiaren Batzordeak 1993an argitaratu zuen txostena, 13.500 kasu baino gehiago bildu zituen txostenean, baina horietatik bi besterik ez dira epaitegietara ailegatu: El Mozotekoa, eta El Calabozokoa. El Mozoteren izena buruan josita geratu zitzaion ilobari izekoren liburua letu zuenean. Liburua hartu du berriz, bila. Markatuta du orrialdea, El Mozotek markatuta bere barrua ilobak. Eta hilabete lehenago letutakoa letu du berriz: "1981eko abenduaren 11, 12 eta 13an, Atlacatl batailoia mila emakume, gizon eta haur hil zituen El Mozote herrian eta inguruko kantoietan. Abenduaren 11ko ilunabarrean, herritarrak plazan bildu zituzten, eta, ondoren, elizan, komentuetan eta etxeetan banatu, generoaren eta adinaren arabera. Hurrengo goizean, lehendabizi gizonak atera zituzten plazara, ilaran jarri eta banaka torturatu eta galdekatu ondoren, haien oihuak herri osoan entzuten zirela hil zituzten. Ondoren, emakumeak atera zituzten plazara. Bortxake-



|||||||miel a. elustondo|||||

|||El Mozoteren izena buruan josita geratu zitzaion ilobari izekoren liburua letu zuenean



ta, tortura eta imajina ez daitezkeen gehiegi-kerien ondoren, exekutatu zituzten. Rufina Amaia izeneko emakume batek ihes egitea lortu zuen, ilaran jarri zituztenean zuhaixken artean gorde eta korrika alde eginez. Ondoren, haurren txanda izan zen; euren gurasoen oihu eta negar guztiak entzun ondoren, plaza erdian matxeteekin jota hil zituzten, balak garestiegiak baitziren haiekin alferrik gastatzeko. Guztira, 1.000 lagunetik gora hil zituzten, herri oso bat; gazteenak hiru egun baino ez zituen. 1982an, publiko egin ziren Rufina Amaiak Washington Posteko kazetari bati emandako sarraskiaren testigantzak, baina, 1980tik aurrera, El Salvadorko Gobernuak zuzendu zuten presidenteei Fortin Magañaik, Napoleon Duarte eta Alfredo Cristianik, behin eta berriz ukatu zuten El Mozoten egindakoa. 1992an, Argentinako indusketa talde batek hildakoak hobietatik atera zituzten, Rufina Amaiak kontatutakoa berretsi zuten. Senarra eta lau seme-alaba galdu zituen Rufina Amaiak, eta 2007an hil zen barkamen eskaerarik eta justiziarik ezagutu gabe".

Ilobak behin ere ez du ahaztuko izekoren liburuan letu duena.✱

**"Badakit  
beti  
alboan  
izango  
dudala"**

IRAKASLEA ETA  
GAES-EKO BEZEROA



ORAIN DELA 8 URTEZTATIK  
MERCEDESEN AUDIOPROTESISTA

**SUBENTZIONATUTAKO  
AUDIFONOAK  
690€-tik  
hasita**

Kontsultatu itzazu promozioiko  
modeloak zure Gaes zentroan.

RPS 178/14

## GAES AZPEITIA

Foruen Ibilbidea, 8 - **T. 943 150 395**

[azpeitia@gaes.es](mailto:azpeitia@gaes.es)

[gaes.es](http://gaes.es) / [facebook.com/GAESCentrosAuditivos](https://facebook.com/GAESCentrosAuditivos)

**ENTZUMEN AZTERKETA DOAN  
DEITU ETA ESKATU TXANDA**

**JEREZ**  
CENTRO DE  
MOTOCICLISMO  
[www.jerezccm.es](http://www.jerezccm.es)

**GAES**  
Centros Auditivos

**ANA.bio**  
ILEAPAINDEGIA

**ILEAPAINDEGI  
BIOLOGIKOA**

**%100 produktu  
naturalak**




Agirre auzunea, 1, Azpeitia

Tel: 943-503-936

 **ANA.bio**

EGOKI JAN,  
EGOKI KONTSUMITU  
...ETORRI ETA PROBATU!



Jakirik goxoenak preziorik onenetan!

ERRESERBATU ZURE ETXEBIZITZA LEHENBAILEHEN,  
ETA APROBETXATU BALDINTZA BEREZIAK

\*PROMOZIO HAU ETXEBIZITZA KONKRETU BATZUETAN ETA 2017KO OTSAILAREN 28 ARTE DA BALIAGARRIA



Alberdi-eneA

zure etxearimoko zubia

INFORMAZIOA ETA SALMENTA

**683 704 750**

JOSE DE ARTETXE, 8 KALEA

[www.alberdienea.com](http://www.alberdienea.com)

ERAIKUNTZA BERRIA  
54 ETXEBIZITZA  
1, 2 ETA 3 LOGELA

**3 LOGELA**  
**229.000€** - TIK HASITA

**GARAJE ITXIAK;**  
**BIKOITZAK ETA BANAKOAK**